

hh
hik hasi

190



XV. HIK HASI UDAKO TOPAKETA PEDAGOGIKOAK

GAIA: NERABEAK ETA HEZKIDETZA • ELKARRIZKETAK:

ALVARO BEÑARAN ETA JAIME ALTUNA • EKARPENAK • GALDEIDAZUE:

TABAKALERAKO HEZKUNTZA-TALDEA • ATZEKO ATETIK: ANE ABLANEDO



DENA PREST

Datorren ikasturterako zure testuliburuak eta eskolako materiala dagoeneko prest dituzu gure liburu-dendetan edo elkar.com webgunean.

Etor zaitetz eta erreserba itzazu!

elkar



aurkibidea



10
gaia

NERABEAK ETA HEZKIDETZA

Hezkidetzaren, sexuen hezkuntzaren, harreman horizontalen nahiz tratu onen inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko gakoak eskaintzen dituzte Eurne Mendizabal eta Axi Baglietto Arremanitz Kooperatibako kideek ikasleekin, irakasleekin zein gurasoekin egiten dituzten saioetan. Tratu txarrei aurre egiteko modurik eraginkorrena txikitatik tratu onak sustatzea dela uste dute.



16
elkarrizketa

ALVARO BEÑARAN

Esaten duguna eta egiten duguna koherenteak izan behar direla dio Beñaranek, bestela zatiketa gertatzen dela eskolaren eta bizitza errearen artean. 0-6 urteko hezitzaileen erreakzioak, emozioak eta printzipioak mahai gainean jarriko ditu 'Hezkuntza zailtasunak: hezitzailearen erantzunak (emozioak, afektuak eta sentimenduak)' ikastaroan.

5 editoriala

6 hizpide izan da eta izango da

8 gaia

NERABEAK ETA HEZKIDETZA: Nola jarri zaintza erdigunean

12 elkarrizketak

12 ALVARO BEÑARAN, psikomotrizista

16 JAIME ALTUNA, Urtxintxako kidea

20 hainbat ikastaro

20 EUSKAL MITOLOGIA ESKOLETAN. IXABEL MILLET

22 ESKOLA EMOZIONALA. OIHANA MEABE

24 DANTZA ETA GORPUTZ HIZKUNTZA. ENEKO BALERDI

26 HARRERAKO HAUREN HEZKUNTZA. GOIZARGI IGLESIAS

28 ANIMALIEKIN ESKU-HARTZEAK. JOSUNE AZPIROZ

29 'IRRIA' ALDIZKARIA GELAN. JOSI OIARBIDE

30 ZEINU-HIZKUNTZA. JANIRE ALONSO

32 KIROL INKLUSIBOA. AMAIA ELIZONDO ETA ENERITZ MAIORA

33 galdeidazue

Zer estrategia izan ditzakegu irakasleok espazio publikoak gure eguneroko praktika pedagogikoan txertatzeko?

TABAKALERAKO HEZKUNTZA LAN-TALDEKO KIDEAK

36 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa


42 Atzeko atetik ANE ABLANEDO

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu, Arantzazu Muñoa eta Iraide Baskaran. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gofñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2014-06-23). Kopurua: 5.000 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



Eman diezaiogun hezkuntzari **garrantzia**



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan,
jardunaldietan eta argitararaten
ditugun gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

Entitatea	Sukurtsala	K.D.	Sinadura	Zenbakia
-----------	------------	------	----------	----------

editoriala uztaila

Formatu, egindako lana agerian jarri eta partekatu



Prestakuntzan dago gakoa, baina ez horretan bakarrik; baita formazioan jasotakoa besteekin partekatzean eta elkarrekin lan egitean ere: “Gelan isolaturik lan egiteko tradizioa apurtu, irakasleok gure lana agerian jarri eta besteekin partekatuz gero, gure profesionalizazioari onura besterik ez genioke egingo”.

Eztabaida eta gatazka ugari sortzen dira hezkuntza-ereduaren inguruan. Lehengora ohituzko iristen da hurrengo erreforma, eta hezkuntzan eskumenen bat duen orok utzi nahi izaten du bere arrastoa. Ez da kasualitatea. Izan ere, hezkuntza-ereduaz hitz egitean pertsona, gizarte eta bizitza ereduaz ari gara hizketan. Nolako hezkuntza, halako jendartea ari gara eraikitzen, hezkuntza baita funtsa –giza balioetan nahiz ekonomikoetan–, gizarteak aurrera egin dezan.

Hortaz, erantzukizun handia dugu hezkuntzaren arloan dihardugunok. Etengabe formatzen aritu behar dugula errepikatu dugu behin eta berriz, bizitzan zeharreko prestakuntza beharrezkoa dela gizarteko aldaketan aurrean nola jokatu jakiteko eta sortzen ari diren eskakizun berriei erantzuteko. Xede horrekin antolatu ditu Hik Hasik XV. Udako Topaketak uztailearen 2, 3 eta 4an. Aurtengoan, gainera, irakasleen prestakuntzak leku berezia izango du ikastaroetako gaien artean.

Nola ikasten da irakasle izaten? Zein arazori egin behar izaten diete aurre hezitzaileek? Zer egin daiteke irakaskuntza are eta profesionalago egiteko? Galdera horiei erantzun eta XXI. mendeko irakasleak prestatzeko HIPREST iker-taldea sortu dute hiru unibertsitatek bat eginda: EHUK, Mondragon Unibertsitateak eta Genevako Unibertsitateak. Irakasleen prestaketan eredu tradizionalak agortuta daudela jakitun, metodo berri bat proposatu dute: irakaslearen jardueraren bere gelako testuinguru errealean abiapuntu hartuta, alegia, irakasleak egiten duenetik abiatuta, norbere burua lanean ikusi eta aztertzea, gero aldaketak eta hobekuntzak bideratu ahal izateko. Horren guztiaren berri emango dute topaketetan.

Hezitzaileen lanaren behaketari garrantzi handia ematen dio Alvaro Beñaran psikomotrizistak ere, eta irakasleen profesionaltasuna aldarrikatzen du aldikari honetako elkarrizketan: “Hezitzaileok ezin dugu ‘ateratzen zaidanaren arabera’ jokatu, ze gauzak ondo do-

azenean agian funtzionatu du jokarera horrek, baina gaizki doazenean, ziu-rrenik ez, eta kasu horietan gure profesionaltasuna behar dugu”. Azken urteetan hezkuntzaren alorrean gertatu den beste aldaketa nagusi baten berri ere ematen du: eskoletan bizitza sartu da. Gaur egun haurrek oso txikitatik ordu pila bat pasatzen dituzte eskolan. “Zama emozional handia duten haurrekin egiten dute lan hezitzaileek, eta behar horiei erantzuteko formazio handia behar dute”.

Prestakuntzan dago beraz gakoa, baina ez horretan bakarrik; baita formazioan jasotakoa besteekin partekatzean eta elkarrekin lan egitean ere. HIPRESTeko kideek gogorarazten duten moduan, urteetan irakasle askok bere gelan isolaturik egin du lan, atek itxita izan ditu: “Tradizio hori apurtu behar dugu. Irakasleok gure lana agerian jarri eta besteekin partekatuko bagenu, horrek gure prestaketa eta profesionalizazioari onura besterik ez lioke egingo. Ireki ditzagun gure atek”.

hizpide izan da



Ziburuko ikastola ixteko arriskuan da

Guy Poulou Ziburuko auzapezak ez dio hitzarmena berri nahi ikastolari, eta irailean egoitzarik eta lurrik gabe gera liteke. Kaskarotenia ikastola ixteko arriskuaren aurrean kalera atera dira gurasoak, eta Paxkal Indo Seaskako presidentek azaldu du ikastolatik “kanporatu” nahi izanez gero ere, bertan eutsiko diotela, nahiz eta Poulouk adierazi handik ateratzeko Polizia bidaliko dutela.

Kaxkarotenia ikastola orain bi urte sortu zuten, hiru haurrekin, Ziburuko Marinela auzoan, eskola publikoko eremuan. Bi urterako hitzarmen bat sinatu zuten herriko etxearekin; Marinelako eskola publikoko eraikinak obretan dira, eta, bitarte horretan, prefabrikatu batzuetan ezarria dute ikastola. Gaur egun, baditu zortzi ikasle eta hurrengo ikasturtean sartzeko badi- ra hamabi izena emanda. Uztailaren 5ean amaituko da hitzarmena, eta herriko etxeak ez du berrituko.

Auzapezak erran die Piarres Larzabal kolegiara joateko. Gurasoak ez dira ados aterabide horrekin, ordea. Argudiatzen dute pedagogikoki ez dela egokia haurrak eta nerabeak nahastea. Erantsi dute Piarres Larzabal kolegian ez dela guztientzat lekurik eta ikastolak badituela proiektu propioak ere. Marinelako eskola publikoko lanak heldu den urtean bukatu, eta haurrak irailean itzuliko dira eskolara. Aisialdi zentroa hutsik utziko dutenez, hara mugitzeko eskatu dute ikastolako kideek. Aisialdi zentrorako “beste plan batzuk” dituela ihardetsi die auzapezak.

Bilboko Ibaigane ikastetxea itxiko dute, eta kolokan daude 300 ikasle

“Eragozpen ekonomikoak” tarte-ko hartu dute erabakia: eskolak emateari utziko dio Bilboko Ibaigane eskolak eta irailetik aurrera ez du jarraituko. Erabakiak ustekabeen harrapatu ditu bai maisu-maistrak, bai ikasleak eta bai sendiak. Izan ere, itxieraren eraginez, kolokan da 300 gazte eta 40 langile ingururen geroa: kalean geratu dira. ELA sindikatua oso kritiko agertu da, eta “kaltetu guztientzako” irtenbide bat exijitu dio Eusko Jaurlaritzari.

Deustua auzoan dago, 1976. urteaz geroztik, Ibaigane eskola. Jesusen Bihotza komentuko mojena da; baita Kristau Eskola sarearen parte ere. Haur Hezkuntzan hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arteko ikasleak hartu ditu urteetan. Hala ere, diru gabeziak buruhauste franko sortu dio. Hain justu, bideragarria ez delakoan itxiko dute.

Kristau Eskolak ohartarazia zuen “muturrekoa” dela egoera, Jaurlaritzaren murrizketak direla eta. Alegia, airean daudela itunpeko hainbat eskola. ELA, baina, ez da iritzi berekoa. Kudeaketa “kaskarrari” egotzi dio Ibaigane itxi behar izana: “Ez da egon matrikula arazorik”. Kristau Eskolan bost ordezkari ditu ELAk, baina ez dute uste aitzat hartu dituztenik. “Bere kasa hartu dute erabakia”.

Hezkuntza-aukerei buruz hausnartzeko gune irekia egingo da urriaren 24an eta 25ean

Zer aukera daude ikasketan, hazkuntzan, hezkuntzan? Ikasi, hazi eta hezi non, noiz, nola, norekin? Orain arteko ereduak balio digute? Beste aukera batzuk behar dira? Nola lortu hori?... Galdera horien inguruan go-goeta egiteko gune irekiko saioa antolatu dute hainbat hezkuntza-eragile eta banakok urriaren 24an eta 25ean Leioako Laboragunean.

Saioa premisa batetik abiatuko da: "Ikasteko dauden eta sortzen ditugun baldintzek gure osasunean, gure harremanetan, hazteko aukeretan eta komunitatearen ongizatean eragiten dute. Guztioi eragiten digu gai horrek: gurasoei, aitite-amamei, izeko-osabei, auzokoei, politikariei,

kazetariei, gizarte laguntzaileei, hezitzaileei eta norbanako bakoitzari".

Antolatzaileek uste dute gero eta jende gehiago ari dela ikastea-hezteko ulertzeko modu zahar-berriei erantzuteko guneen bila. Eta gainera, gero eta argiago, erabakitze eskubidea aldarrikatzen dute ikasketa eta heziketa ardura dagoen guneetan eta haien eraldaketan parte izan nahi dute. Xede horrekin antolatu da topaketa.

Saioan parte hartu nahi duen orok 20 euro ordaindu behar ditu eta izena emateko hezkuntzari@gmail.com helbidera idatz dezake edota 661226847 telefono zenbakira deitu behar du.

Ingeles ereduko irizpideak aldatuko dira Nafarroan

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak dekretu bat egin du Ingelesa Ikasteko Programari buruz. Arazoak ditu behar adinako gaitasuna duten irakasleak topatzeko, eta eskolak emateko irizpideak arindu ditu. C1 maila ordeztu, aski izango da First titularen pareko maila (B2).

Bi baldintza bete beharko dira: gutxienez hogeit hamar hilabetez tutoreorde izatea Haur edo Lehen Hezkuntzako atzerriko hizkuntzan eta trebakuntza planetan izena ematea. Zalaparta era-

gin du erabakiak sindikatu eta oposizioko taldeen artean, uste baitute ereduaren kalitatea "kaskartuko" dela.

Nafarroako Hezkuntza kontseilari Jose Iribasek adierazi du eredia "egonkortua" dagoela ikastetxe publikoetan zein itunpekoetan: "Especialitatea eta maila ona uztartu nahi dugu. Hori egiteko garaia iritsi da, eta modua ere badugu". 500 pertsona inguruk egin dute ingeles ereduaren jarduteko azterketa, baina haren arabera, funtzionarioek dute lehentasuna.



Bizi Toki diruz laguntzeko elkartasun kanpaina

Orain dela hiru urte sortu zen Bizi Toki, ohiko eskolaren alternatiba izango den lekua. Bere egoitza konpontzeko lanak auzo lan bidez burutzen dituzte, baina tokia egokitzeko materiala erosi behar izan dute, eta horrek kostu handia eragin die. Horrexegatik, 20.000 euro biltzeko elkartasun kanpaina hasi dute eta Bizi Tokin interesa azaldu duten guztiei laguntza eskatu diete.



...izango da

GAIA

Bizitzaren aurrean, betaurreko moreak

*Nerabeak eta hezkidetzak:
nola jarri zaintza erdigunean*



xx



Zeintzuk dira hezitzaileen beharrak? Pozik al goaz lanera? Eta neska-mutilek zein behar dituzte? Zer dakarte motxilan? Lubakietatik irtenda, elkar zaintzea posible al da? Galdera horietatik abiatuta, hezkidetzaren, sexuen hezkuntzaren, harreman horizontalen nahiz tratu onen inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko gakoak eskaintzen dituzte Edurne Mendizabal Tolosa eta Axi Baglietto Gabilondo Arremanitz Kooperatibako kideek ikasleekin, irakasleekin zein gurasoekin egiten dituzten saioetan.

G

Pertsonak bere osotasunean askatasunez garatu ahal izatea lortu nahi dute hezkidetzaren bidez Arremanitzeko kideek. Eta pertsonaren osotasunaz hitz egitean, haren adimenaz, gorputzaz, emozioez, dimentsio sozialaz... ari dira. Xede horrekin, elkarren arteko tratu onak eta bata bestearen zaintza jartzen dituzte euren praktikaren erdigunean. Tratu txarrei aurre egiteko modurik eraginkorrena txikitatik tratu onak sustatzea dela uste dute, bata bestearenganako arreta, zaintza, ulerkortasuna, babesa, konfiantza... bultzatzea.

Hezkidetzeta eta tratu onak sustatzeko, eskolaren bitartez, nerabeekin lanean hasi ziren orain dela dozena urte inguru. Baina segituan konturatu ziren horrekin ez zela nahikoa, beste adin-tarte batzuetara ez ezik, beste sektore zenbaitetara ere zabaldu behar zutela proiektua. Horrexegatik, gaur egun, LH6an hasten dute egitasmoa eskoletan eta Batxilergora arteko ibilbidea egiten dute; baina horrez gain, irakasleekin, gurasoekin nahiz herrikohainbattalderekin ere lantzen dute gaia. Azken batean, komunitate osoarekin egiten dute lan, modu integralean, ahal den heinean tokian tokiko sareak eratuz: "Argi izan dugu proiektua eskolan modu isolatuan lantzearekin ez dela nahikoa, kalera, auzora, herrira ateratzea ere ezinbestekoa dela. Ez gara ez guraso, ez irakasle, ez lagun. Beste figura bat gara eta, gazteentzat ez ezik, komunitateko partaide guztientzat baliabide izatea da gure helburua".

Gizonezkoak eta emakumezkoak: mundua bitan banatuta dago eta gaur egungo paradigma indartsuene-tako bat da gainera banaketa hori. "Jendarte sexista da oraindik", esperientziaz diote hori Mendizabalek eta Baglietok. Nerabeak jendarte horren

ispilu dira euren esanetan, eta zenbait alderditan muturreko jarrerak hartzen dituzte. Horietakobat da sexualitate eta genero-rolen gaia. Ikasgeletara sartu orduko ikusten dute hori Arremanitzeko kideek. Saioa hasi aurretik mahaiak bazterreratu eta aulkietan nahi duten moduan esertzeko eskatzen diete ikasleei. Gehienetan mutilak alde batean eta neskek bestean jartzen dira: "Bizitza osoa talde mistoetan daramaten arren, badago bereizten dituen marra bat". Horrelako jokabideetatik abiatuta, ikasleekin batera genero-ereduen gainean hausnartzen hasten dira, nerabezaroan, artean, oso ikuspegi zurruna izaten baitute, oro har, nesken eta mutilen estereotipoaren gainean. Sexuen hezkuntzan agertu ohi den adibidea jartzen dute: "Mutilek sexualki oso aktibo azaldu behar izaten dute, nahiz eta hala ez izan, segituan masturbazioaz hitz egiten hasten dira harrotuta; neska sexutu batek aldiz, zigorra jasotzen du, askoz arduratsua-go azaldu behar du, polit eta lirain, baina sexualki ez hain aktibo, sexuaz jakin behar du, ezin du, ordea, bereziki lotsagabe izan". Eredue horien inguruan gazteekin batera pentsatzen eta hausnartzen saiatzen dira, zurruntasunarekin apurtzen eta aniztasuna balioan jartzen. Izan ere, Arremanitzeko kideek diotenez, gazteek oraindik jendartean "normaltzat" jotzen diren edota onartua izateko beharrezkoak diren ezaugarri hertsirik jarraitzen dituzte: "Zurruntasun horren aurrean aukeren abanikoa irekitzen eta ederrena aniztasuna dela transmitzen saiatzen gara. Denok daukagu denetik; denok ditugu femininotzat hartzen diren ezaugarriak nahiz maskulinotzat hartzen direnak".

Genero-estereotipoen ispiluak laguntzen die botere-harremanak

Nerabeak eta hezkidetzaz

egon badaudela ikusarazten. Bagliettok azaldutako eran, gaur egun eremu askotan denok berdinak garela eta aukera berberak ditugula dioen diskurtso “zuzen” bat da nagusi, baina horrek ezer gutxi du errealetik: “Nik sarritan mutilekin lan egiten dudanean arrazakeriaren edota heldukeriaren gaia erabiltzen dut ispilu gisan eta hainbat galdera planteatzen dizkiet: ‘Zer aurreiritzi ditugu beltzekiko? Eta ijitoekiko? Ze aurreiritzi dituzte helduek gurekiko, nerabeekiko? Edota frontoira iritsi eta bertan haur gazteagoak dabiltzanean zer gertatzen da? Nork du boterea eta zergatik? Hainbat eskoletan jendea pasabidean doala haiei iseka egiteko egiten diren arkuak nork egiten ditu, mutilek ala neskek?’ Harreman horietan botere-harremanak daude, gizon eta emakumeen arteko harremanetan egon daitezkeen bezalaxe. Hori guztia jartzen dugu mahai gainean kontzientzia hartzeko: Nik zein elementu daukat nire bizitzan boterea ematen didatenak beste pertsona batzuekiko? Eta zer egingo dut horrekin?”

Neskekin eta mutilekin bereizita lan egitea da Arremanitzeko kideen metodologiaren gakoetako bat. Ikasketxeetan premia hori askotan sentitzen dutela uste dute, baina ez dela artikulatzen: “Sexuen hezkuntzari edota genero-rolari dagozkien zenbait gai lantzeko eraginkorragoa da mutilak alde batean eta neskek bestean jartzea”, dio Bagliettok. Hala, neskekin ahalduz edo boteretze saio txikiak egiten dituzte; mutilekin berriz, gizontasuna zer den edota homofobiak nola eragiten duen lantzen dute. Rolak nola eraikitzen diren eta zelako mina eragin dezaketen ere aztertzen dute batzuekin eta besteekin. Mutil



Axi Baglietto Gabilondo eta Edurne Mendizabal Tolosa Arremanitz Kooperatibako kideak.

zein neska, bakoitzak bere aldetik go-goeta egin ostean, guztiak elkartu eta egoera hori gainditzeko zer egin dezaketen pentsatzen dute, eta ahal izanez gero, hainbat ekintza zehatz markatzen dituzte: “Guk ez daukagu soluziorik, eurek baizik. Guk konfiantza osoa daukagu euren pentsatzeko eta egiteko ahalmenean”, gainertzen du Mendizabalek.

Ikasle, guraso nahiz irakasleekin egiten dituzten saio guztietara Arremanitzetik gizonetako bat eta emakumezko bat joaten saiatzen dira, hala genero-estereotipoak euren praktikatik hasita zalantzan jartzeko. Sexu-orientazioari, bakoitzaren identitateari, familia edota antolaketa moduei dagokionez, diskurtso nahiz eredu zuzenak egon badaudela uste dute Mendizabal eta Bagliettok, jendartea nahiko anitza baita, baina oraindik nagusitzen den eredu oso heteronormatiboa dela: “Adibidez, sexualitateaz hitz egiten dugunean, gazte nahiz helduek, oso eredu genitalizatua daukagu buruan, oso eredu koitozentrismo, oso heterozentrismo, oso ok-

zidentala, oso gaztea, oso ‘ederra’ (edertasuna publizitateak saltzen digun moduan ulertuta). Eredu horretan jendarte honetako %10 sartzen da eta beste guztiak kanpoan geratzen gara”. Eredu zurrin eta bakar horiek apurtzen eta aniztasunari balioa ematen saiatzen dira. Izan ere, buruan eredu bakarria izatearen ondorioz, jende gehienak alferrik sufritzen dugula uste dute.

Sexuen hezkuntza lantzen dute hortaz Arremanitzeko kideek, baina sexualitatearen kontzeptu oso zabal batetik abiatuta: norbere buruaren estimua, gorputz irudia, bakoitzaren gaitasunak, autokonfiantza, desira... Izan ere, sexualitatea pertsonaren dimentsio ezinbesteko bat dela uste dute, pertsona batek ezin duela sexualitatea etxean utzi eta eskolara joan. Baina badirudi sexualitateaz momentu jakin batzuetan hitz egiten dela, eta gainontzean sexualiterik ez dagoela.

Sexuen hezkuntzatik abiatuz, genero-rolen eta berdintasunaren gaia jorrateaz gain, botere-harremani

dagokien joko-zelaian kulturartekotasuna, aurreiritziak, gatazkak eta zapalkuntzak ere aztertzen dituzte. Izan ere, gerta daiteke ikasgela batera sartu eta hango arazo potoloena sexismoaz haratago doala ikustea; esaterako, norbait oso markatua egotea emakumea ez ezik, etorkina delako: “Gehien lantzen dugun gaia generoarena da, hori baita gure alorra. Baina ikusten baldin badugu beste gairen baten inguruan talka garrantzitsuren bat dagoela, horri heldu gabe askotan alferrik izaten da beste ezerekin hastea. Esperientziak erakutsi digu aurrena mahai gainean dagoen horri arreta jarri behar diogula”.

Zaintzari balio positiboa eman nahian

Eguneroko harremanetan tratatu txar txiki asko gertatzen direla uste dute Arremanitzeko kideek. Horren aurrean tratatu onak, ongizatea eta plazera sustatu nahi dituzte. Tratatu txarrik prebenitzeko modurik eraginkorrena horixe dela irizten baitute. “Jendarte honetan oso sartuta daukaguz zer egin behar den eta nola, exigentzia handiak ditugu, betebeharrak, kezkak, presioa... Guk jendea hobeto, arinago bizitzea nahi dugu eta bizi-modua plazeraren eta zaintzaren bueltan antolatzea”, argitzen du Mendizabalek. Askotan, irakasle nahiz gurasoen kasuan ezina ikusten dute, bakardade handia, elkarren arteko babesik eza, eta arazoak daudenean euren bizkar hartzen dutela ardura osoa: “Eskola batean lesbofobia kasu larri batekin topo egin genuen. Tuto-reak bere ardura zela sentitzen zuen eta ez zeukan gairen inguruan inolako babesik. Nola antola gaitezke horrelako kasuetan? Pertsona bere oso-

tasunean garatzeaz eta elkarren arteko zaintzaz ari bagara, nola egingo dugu hasteko eta behin gu, hezitzaile moduan, zainduak izan gaitezke? Nola egingo dugu gure arreta eskatzeko eta gure premiak ere zaindu egin behar direla ikusarazteko?”, eransten du Baglietok.

Elkarzaintzeaz hitz egiten dutenean, irakasleen eta ikasleen artean harreman onak sustatzeaz ari dira, baina baita ikasleen elkar-zaintzaz nahiz irakasleen elkar-zaintzaz ere, edota eskolaren eta familien artean izaten diren erlazioez. Gaur egun, gainera, zaintzak kutsu negatiboa duela uste dute Arremanitzeko kideek, hitzak berak “zama” adierazten duela, inork bere gain hartu nahi ez duen zerbait. Jendeak, ordea, beti zaindu izan du elkar eta ardurak hartu ditu taldean: “Umeak zein nagusiak zama bilakatu zaizkigun honetan, zaintzak askorentzat adierazten duenari buelta eman nahi diogu, balio positiboa eman, eta zaintzarik ezean guztiok hil egingo ginatekeela transmititu”.

Hezkuntzaren erdigunean zaintza jartzea proposatzen dute, baina zer gertatuko litzateke kasu horretan? Baglietto eta Mendizabalen aburuz, gaur egungo hezkuntzak emaitzetan oinarritutako ikasteko modua lehenesten du eta badakite eurek bultzatu nahi duten ereduak –zaintza erdigunean jarri– talka egingo lukeela sistema horrekin, pertsonaren garapen osoa aldarrikatzen baitute, eta arreta pertsonak dituen behar guztietan (zaintza, harremanak, emozioak, alderdi soziala...) jartzea: “Pertsona erdigunean jartzen badugu, berarengan konfiantza baldin badugu eta ikasten laguntzen badiogu, pertsona hori bere bidea egiteko gai izango da.

Kasu horretan emaitzak ere hobeak izango dira, hobeto sentitzen delako, konfiantza daukagulako bere gaitasunetan, eta ikas-prozesuaren ardura ere berea izango delako. Egungo exigentziak eta kontrolak zenbaitetan pertsonaren dimentsio osoa galtzea dakar, eta egoera horretan pertsona ondo sentitzen ez bada, emaitzak ere okerragoak izango dira”.

Zaintza hezkuntzaren erdigunean jartzeko formula magikorik ez duten arren, hainbat hari-muturri tiraka urratzen dute bidea. Hasteko eta behin, pertsona bere osotasunean begiratzen dute, eta bigarrenik, norberak nahiz besteek izan ditzaketen aurreiritziak identifikatzen eta pertsonaren identitatearen inguruan sortzen diren estereotipoen inguruan kontzientzia hartzen saiatzen dira, eta baita pertsonari arreta eskaintzen ere. Baglietok azalduzko eran, berdintasunaren aldeko diskurtsoa oso zabaldua dago eta sarri hezitzaile, guraso edota irakasleok ez gara konturatzen zenbait egoeraren aurrean izan ditzakegun aurreiritziez: “Askotan entzun izan dugu ‘nik denak berdintzatzen ditut’ edo ‘nire ahalegina da ikasle guztiakin modu bertsuan jokatzeko’, etab. Baina, begira diezaiegun benetan ditugun aurreiritziei, nola tratatzen ditugun mutilak eta nola neskak, zein estereotipo ditugun guk geuk gizon edo emakume garen heinean, bertako edo kanpoko, heldu edo gazte... Horretaz jabetzeak aukera ematen digu gure harremanetan eragiten duten aurreiritzi horiei guztiei aurre egiteko eta tratatu onak bideratzeko. Azken batean, bizitzaren aurrean betaurreko moreak eta betaurreko gozagariak janzteko urratsak egitea da gakoa”.

alvaro beñaran

Psikomotrizista



'Hezkuntzan zailtasunak: hezitzailearen erantzunak (emozioak, afektuak eta sentimenduak)' ikastaroan 0-6 urteko hezitzaileen erreakzioak, emozioak eta printzipioak mahai gainean jarriko ditu Beñaranek.

“Esaten duguna eta egiten duguna koherenteak izan behar dira, bestela zatiketa bat gertatzen da eskolaren eta bizitza errealaren artean”

Zer garrantzia daukate emozioek, afektuek eta sentimenduek Haur Hezkuntzako hezitzaileen lanean?

Haur Hezkuntza profesio bat da baina, batez ere, bizitza da; eta horrela hartu behar dugu, ez bizitzatik aparte balego bezala. Gure lanak gure izatearekin zerikusia dauka, gure bizitza da, baina baita haurren izatearekin eta familiarenarekin ere. Horregatik aztertu egin behar dugu esaten duguna eta egiten duguna bat ote datozen, transmititu nahi ditugun baloreak eta gure jarrerak bat ote datozen. Perfekzioz ez dago, baina koherentzia bilatu behar dugu: esaten dugun hori egia izan behar da. Bestela eskizofrenia bat gertatzen da, eskolaren eta bizitza errearen arteko zatiketa bat, hau da, haurrek jasotzen dute eskolan ikasten dena gauza bat dela eta bizitza erreala beste gauza bat dela. Saiatu behar dugu zatiketa hori gainditzeko, eskolan bizi dugunaren eta handik kanpokoaren artean koherentzia egon dadila, eta ikasleek ikus-tea helduok transmititzen duguna egiazkoa dela.

Oso egokia da defendatzen ditugun printzipioen eta gure praktikaren arteko koherentzia bermatzen lagunduko diguten metodologiak aurkitzea, eta metodologia horrek barne-bildu behar ditu emozioak eta afektuak; bai haurrenak baina baita hezitzaileonak ere.

Jar zenezake printzipioen eta praktikaren arteko inkoherentzia horren erakusle den adibiderik?

Guk haurrei esaten diegu elkar errespetatu behar dugula; inizatiba edukitzea oso garrantzitsua dela bizitzan; norbere gogoak agertzea ona dela... Baina gero, askotan, ez ditugu euren nahiak errespetatzen eta gure nahietara edo beharretara moldatu behar izaten dute haurrek. Ez da egia haurren beharrak benetan errespetatzen ditugula, guk gure kezkek ditugu, gure betebeharrak, programak

bete behar ditugu... eta haurren premien gainetik jartzen ditugu askotan. Beraz, haurrek zer jasotzen dute? Borterea duenaren arabera jokatzeko dugula guztiok, eta ez dela egia bestea kontuan hartzen dela.

Urte askoan hezitzaileen lana behatzeko aukera izan dut eta baita neurri lan propioa ere. Argi ikusi dut haurrei askotan ematen diegun erantzunak ez daukala zerikusia zuzenik haurrekin eurekin edo euren jokabidearekin, baizik eta geure buruarekin dutela erantzun horiek zerikusia, gure emozioekin; ez ditugu beraien alde, beraien mesedetan egiten gauzak, ez haur urdurien mesedetan, edo pasiboekin laguntzeko... baizik eta guri baliogabeko egiten dugunak, haurrek molesta ez dezaten, guk programarekin jarrai dezagun... hau da, gure mugei eta zailtasunei aterabidea emateko jokatzeko modu batera edo bestera.

Beste adibide bat jarriko dizut: oraindik oso tipikoa da, haur bati ez jotzeko esatea ipurdiko bat ematen diogun bitartean, edo "ez garrasi egin!" esanaz haurrei oihu egitea. Ez dut esan nahi haur batek garrasirik ez duela entzun behar baina desberdina da haur bati erantzun bat ematea hari laguntzeko edo erantzun bat ematea haur horri eraso egiteko, nahiz eta modu inkontzientean egin eraso.

Nola egin diezairoke hezitzaileak haurri eraso modu inkontzientean?

Haurra gu zailtasunetan jartzen ari denean, besteei jotzen dienean, guri oihu egiten digunean, gurasoen aurrean beste haur batzuei horzka egiten dienean... hezitzailea gaizki sentitzen da, eta haur horri lagundu beharrean, kontraeraso egiten dio. Estu- sunetan gaudenean haurrek gure kontra egiten dutela sentitzen dugu, eta guk geure burua defendatzeko beharra sentitzen dugu. Egoera horietan egiten duguna, beraz, ez da erantzun pedagogiko bat izaten, bai-

zik eta kontraeraso bat. Baina hau guztia ez da hezitzaileok kontzienteki egiten dugun ariketa.

6 urte bitarteko haur batek pentsa dezake zerbait nahita egitea irakaslearen kontra?

Ez. Lehenengo 6-7 urteetan haurrek ez dute helduak daukan pentsamenduaren modukoa, ez da pentsamendu intelektuala, ez baitaukate pentsamendu logikoa. Haien pentsamendua oso subjektiboa da, sentitzen dituzten emozio eta afektuetan oinarriturik dago. Ez dute objektiboki eta era logiko baten arabera pentsatzen; "hau egingo dut heldu honek horrela joka dezan...", ez dute horrela pentsatzen; ikusten dute hezitzaile batek modu batean edo bestean jokatzeko duela, eta beren nahia bideratzeko bidea bilatuko dute, baina mekanika oso subjektibo baten arabera, ez helduok dugun logikaren arabera.

Barneratu egin behar dugu haur txikiak oso modu subjektiboan pentsatzen dutela, eta beraz, ez dituztela gauzak egiten gu izorratzeko; hori ez da egia. Egiten dutenak izorratuko gaitu agian, baina ez dute horregatik egiten; baizik eta mekanismo horren bidez, helduarengandik zerbait jaso- ko dutelako ziur aski, erantzunen bat, arreta, emozioen bat, harremana, interesatzen zaien zerbait... eta horregatik errepikatzen dute ekintza hori.

Beste ideia bat ere argi eduki behar dugu Haur Hezkuntzan gabiltzan hezitzaileok: haur batek ez du ekintza bat hezitzailearen pertsonaren kontra egiten. Haur bakoitzak daukan funtzionatzeko modua da, eta niri, heldu bezala, eta hezitzaile gisa daukadan lanagatik, haur horrek mekanismo hori nigan proiektatzea egokituko zait.

Afektuak, emozioak... aipatzen dituzu, baina horien gainean ez badugu lanketa bat, formazio bat egiten, ez ote dago senari bide emateko arriskua eta haur horiei profesional bezala ez

“Eskolan bizitza sartu da, gero eta gehiago, eta zama emozional handia daukate haur horiekin lan egiten duten hezitzaileek”

erantzutekoa?

Maila profesionalean ezin dugu erantzun hori intuizioaren edo bat-batekotasunaren esku utzi. Horrek bereizten gaitu profesionalak eta gurasoak. Hezitzaileok ezin dugu “ateratzen zaidanaren arabera” jokatu, ze gauzak ondo doazenean agian funtzionatuko du jokaera horrek, baina gaizki doazenean, ziurrenik ez, eta kasu horietan gure profesionaltasuna behar dugu.

Adibidez, zer egin dezakegu ondo erortzen ez zaizkigun umeekin? Aitortu egin behar dugu ez gaudela haur guztiekin gustura; batzuekin bai, oso gustura gaude, eta erraza da lana egitea, baina beste batzuekin ez, eta haiekin lana egin behar dugu, eta batzuetan lan gogorra. Haur horiei profesionalki laguntzen saiatu behar dugu, nahiz eta ez atsegina egin; hori da gure egitekoa. Horretarako, egoera horietako bat-bateko erantzunak ez du balio, baina aurretik egin dugun lanak bai.

Nola jakin dezakegu emozio batzuk gureak direla eta ez haurrarenak?

Normalean ez dugu jakiten emozio horiek gureak direla eta ez haurrarenak, hau da, ez gara ohartzen nekaturik gaudelako jokatzeko dugula modu batera edo bestera, edo haur bat gaizki erortzen zaigulako egiten dugula bata edo bestea; konturatu baldin bagara, dagoeneko hasi gara soluzio bat ezartzen. Hori da lehen urratsa.

Bigarrena? Distantzia hartzea. Batzuen kasuan formazioak erakutsiko digu egoera horietatik distantzia hartzen, emozioek harrapatuta gaude-nean zaila baita pentsatzea. Distantzia hartzeko sistema bat eduki behar dugu, eta pentsatu, “joño, nola egin dut hori?”. Beste batzuetan, kideekin hitz egiteak lagundu gaitzake esku artean dugun egoera kudeatzen; eta baita geure kabuz irakurtzeak ere, proiektuak aztertuz, idatziz.... Helburua distantzia emozional bat hartzea

da. Emozio horiek gutxitu behar ditugu pentsamendua martxan jartzeko. Kapazak izan behar dugu egoerak aztertzeko.

Gure emozioek nola eragiten digute haurrekin lan egiteko orduan?

Adibidez, asko jotzen duen haur bat baldin badaukagu gelan, dinamika hausten duena, besteen jolasak hausten dituen... askotan hezitzaileak gelako punta batetik bestera garrasika bukatzen du. Horrelako zenbait kasutan, hezitzaileak dio haurrak garrasi hori behar duela, baina benetan hori behar du? ala hezitzailea bera dago ezinean, minduta, eta kolpeak bueltatzen dizkio haurrari –nahiz eta ez izan fisikoak?– Noski, haur horrek egiten duen hori –hautsi, jo...– ez da egin behar, baina gai ote gara haur hori eta haren ekintzak bereizteko? Jar al genezake muga bat bere izatearen eta egin duen horren artean? Seriotasuna agertu behar dugu, baina ekintzaren aurrean.

Estrategia ona da egin duena, ekintza bera, eta haurra bereiztea. Ezin dugu haurra gaiztotzat hartu, baizik eta egin duen gauza desegoki hori izango da onartuko ez duguna, ez haurra bera; eta ekintza hori egiten duenean serio ikusiko gaitu, haserre... baina bere pertsona salbu utziko dugu, eta ekintza horrekiko desadostasuna markaturik, harreman normala eduki ahal izango dugu haur horrekin. Horrez gain, berehala erakutsi behar diogu haurrari lortu nahi duen hori—gure atentzioa, besteekiko harremana, zerbait konkretua...—beste modu batean lortzen; eman konfiantza eta baliabideak ez jotzeko, ez hausteko; seguru badaukiela beste modu batean egiten gauzak. Baina kontrara, beti garrasika zuzentzen bagatzaizkio, haur horrek ospe bat hartzen du.

Hezitzailearen lanaren behaketari garrantzi handia ematen diozu; zertan laguntzen du?

Nik uste dut oso garrantzitsua izango litzatekeela mekanismo bezala noizbehinka gure lanaren behaketa egitea. Behaketa kanpoko profesional batek egin dezake, baina azterketa hori egiturazkoa izatea komeni da, delikatua baita; zentro bateko profesionalek, irakasleak eta zentroak, nahi izan behar dute euren lana behatzea. Bestetik, konfiantzazko lankideren bati ere eska diezaiokegu gure lana begiratzeko. Eta, horrez gain, autobehaketa egin daiteke.

Askotan erantzunak nahi ditugu hezitzaileok... unean-unean zer egin behar dugun esaten diguten teoriak eta metodoak... baliagarriak dira?

“...zer egin behar dut?”, edo gisa horretako galderek, psikomotrizitatearen ikuspegitik, mugatu egiten dute erantzuna. “Haur honek jo egiten du, horzka egiten du, zer egin behar dut?”, galdetzen dugunean haur horren zailtasunetan ari gara oinarritzen, zailtasunetan dagoenean pentsatzen baitugu zer erantzun eman. Eta hor zaila da. Egon badaude erantzunak, baina kontua haur horren beste aurpegi bat ikustea da. Horrelako galdera zehatzak egiten dituztenean hezitzaileek, nik txantxetan galdeetzen diet ea haur horrek denbora guztian jotzen duen, denbora guztian horzka egiten duen, minuturo...? Egiten dituen gauza guztiak okerrak dira? Kalamidade hutsa da? Ezaugarri bakarrarekin sailkatzen badugu haurra, ume horrek egiten dituen beste gauza asko estaliko ditugu. Bestelako gauza batzuei begiratzeak laguntzen du gure erantzuna bilatzeko garaian: Zer gauza egiten du haur horrek gustura? zer gustatzen zaio? noiz egoten da lasai?... Bada indartu gauza horiek, baina ez indartu gauza horiek beldurra diozulako eta molesta ez dezan, baikik eta benetan lagundu nahi diozulako eta benetan garrantzia eman nahi diozulako haur horri, bere balioak ikusteko eta erakusteko: “Gauza egokiak ere egiten dituzu; nik ikusi dut;

badezakezu...”, eta geroesan egin behar zaio: “Ikusi duzu nola egon zaren azken hamar minututan jo gabe? Nik ikusi dut, eta ikusi dut primeran egon zarela. Ez zaude gustura orain? Ni bai, eta besteak ere bai”.

Haur bakoitzarekiko komunikazio zuzena proposatzen duzu zuk.

Bai, eta hala hartu behar da. Ez dugu sintomara joan behar, baizik eta haur horri nola lagun diezaiokegun pentsatu behar dugu, zer indartu genezakeen bestea gutxitzeko. Badakigu asko jotzen duen umeak zerbait daukalako jotzen duela, beraz saiatu behar dugu gelan gutxienez ondo sentiarazten hezitzailearekin. Baina ez dago errezetarik. Printzipioak bai, adibidez aipatu ditudan printzipio horiek niretzako oso garrantzitsuak dira: ez joan sintomara; ez bilatu soluzioa gatazka-uneetan; bilatu harreman egokiak sortzeko momentuak, berak ulerdezan bere ondoan gaude-la; hartu distantzia...

Haur Hezkuntzako adinetan buruan izan behar dugu haurra zerbait bilatzen ari dela bere portaerarekin; izan harreman bat, atentzioa, begirada... Zer bilatzen ari den saiatu behar dugu ulertzen, eta horri erantzun bat ematen saiatu, arauarekin batera, batzuk ez baitu bestea kentzen. Ikusi behar du araua laguntzeko jarrerarekin batera doala, osagarriak direla.

Haurraren jarrera ulertzeko, hezitzaile bakoitzak bere burua ere ondo ezagutu behar du, ezta?

Bai. Nik horregatik ematen diot halako garrantzia formazio pertsonalari. Irakurteak asko laguntzen du, baina norberetik pasatu behar ditugu jasotzen ditugun teoriak eta metodoak, ez da ariketa kognitibo bat soilik, pertsona osoa ukitu behar du formazioak, bizi egin behar da.

Hezkuntzan oso inportantea da norbere printzipioak mahai gainean jartzea, zertan sinesten dugun hausnartzea, zer helburu ditugun, eta, ho-

rren arabera, etorriko dira zehaztapenak, metodoak eta teoriak. Printzipio horiek haurrekin ez ezik, euren familiarekin eta gure lankideekin ere praktikan jarri behar ditugu, koherente izan behar dugu beste behin. Bestela eskola leku artifizial bat bilakatzen da, bizitza errealetik erabat aparte dagoena eta batere eraginik ez daukana haurraren garapenean eta balioetan.

Urte asko daramatzazu hezitzaileak formatzen. Gero eta distantzia handiagoa dago esaten dugunetik egiten dugunera?

Ez da erraza esaten. Denetik ikusten dut. Badaude euren esanaren eta praktikaren artean koherentzia handia egon dadin lan egiten duten hezitzaileak. Baina gizartean ere aldaketa eman da. Politikariak dira inkoherentziaren adibide argiena; gauza bat esaten dute, beste bat egin, ez dute barkamenik eskatzen, eta eskatzen badute ondo gelditzeagatik egiten dute... Zertarako ari gara orduan eskolan bestelako balio batzuk lantzen? Haurrak berehala konturatzen dira zerk daukan prestigioa gizarte batean eta zerk ez. Horregatik oso garrantzitsua da hezitzaileak koherenteak izatea benetan sinesten dugun printzipioekiko. Horrez gain, hezitzaileok argi izan behar dugu haurra dela gure helburua, eta ez haren familia, hezkuntzan ez baikara familia-terapeutak. Familiarekin lan egiten badugu ere, haurragatik izango da, haurra da helburua.

Urte hauetan honako aldaketa hau ikusi dut: eskolan bizitza sartu da, gero eta gehiago. Lehen ikasteko zentroak ziren batez ere, baina orain haurrek, osotxikitatik, ordu pila bat pasatzen dituzte eskolan, bertan ikasten dute jaten, lo egiten... eta zama emozional handia daukaten haur horiekin lan egiten duten hezitzaileek. Behar horiei erantzuteko formazio handia behar dute hezitzaileek, baina mugak ere ezarri behar dituzte, hainbat lan ez baitira eurenak; eurak ez dira familien haurtzainak.

jaime altuna

Urtxintxa



“13-14 urteko gaztetxoek Negu Gorriak ez ezagutzeak zer pentsatua ematen dit: zer kultura ari gara transmititzen?”

Norberaren bizipenetatik abiatuz, euskararen erabilera sustatu nahi du Euskaraolak. Horretarako, psikologiaren arloan uste eta jarreraren eraldaketan bizipenek eta emozioek duten eraginkortasuna kontuan dauka, batetik, eta bestetik, hizkuntza berari eta hizkuntza komunitateari garrantzia emateaz gain, hizkuntza norbanako gisa hartu eta maila indibidualean erreparatzen du, soziolinguistikako ekarpenak kontuan izanik.

Nola eragiten dute bizipenek eta emozioek pertsonak hizkuntza baten inguruan daukan jarreran?

Haur eta gazteei zuzenduriko hizkuntza-programetan, portaera edo jarrera batzuk aldatu nahi izaten ditugu, hau da, gaztelaniaz ari diren haur eta gaztetxo horiek euskara erabil dezaten nahi dugu. Horretarako erabili izan den estrategia “egin euskaraz” izan da; eta, euskara erabili ezean, neurtu egiten zen. Duela lau bat urte, ikusi genuen hizkuntzarekiko portaera aldatzen saiatzen garela, baina ez dakigula portaera horren azpian zer uste, zer iritzi dagoen. Hau da, gaztearen portaera aldatzeko beharra ikusten dugu helduok, euskara erabil dezan nahi dugu; baina, gaztearen portaera aldatzeko, helduon uste eta iritziak daude oinarrian; helduon ideologiatik saiatzen gara haurren eta gazteen jarrera aldatzen, euren iritziak, sentimenduak, zalantzak kontuan izan gabe.

Bizipenak kontuan izan behar ditugula esaten dugunean, norberaren bizipenetan hizkuntzak duen tokia ikusteaz ari gara. Pertsona batentzat, euskaldun sentitzeko elementu zentrala euskara izan daiteke; baina beste baten nortasunean talde-izaera ematen dioten elementu zentralak beste batzuk izango dira. Bizipenei buruz hitz egiten dugunean, hezitzaileek bizipen horiek lantzea eta transmitzea proposatzen dugu, heziketa emozionalaren paradigmatik abiatuta; batek hezitzaileak berak adieraztea hizkuntzaren inguruko bere bizipenak zein diren, eta, bestetik, haur eta gazteek hizkuntzekin lotuta dituzten bizipenak kanporatzen saiatzea, bakoitzak hizkuntzak nola sentitzen dituen azaltzea, berarentzat zer garrantzi duen hizkuntza batek eta zer besteak... Bakoitzak bizipen batzuk ditu hizkuntzekin lotuta, eta bizipen horiek oso desberdinak izan daitezke pertsona batetik bestera; horrek eragina du hizkuntza baten eta bestearen

aurrean norberak duen jarreran.

Jar ditzakezu hizkuntzaren inguruko hainbat bizipenen adibideak?

Hezitzaile bati gertatutakoa kontatuko dizut: gaztetxo bati “egin euskaraz” esan zion; eta gaztetxoak “zer gatik?” erantzun zion; “bada, gure hizkuntza delako”, erantzun zion hezitzaileak. Horren aurrean ezetz esan zion gaztetxoak, “nirea ez”. Eta hala xe zen, kasu zehatz horretan pertsona horrek euskara ez zuen bere hizkuntza; ez etxean, ez eskolan, ez lagunartean ez zuen euskara jaso. Hezitzaileon iritzi horrek, “gure hizkuntza delako”, ez zuen balio gaztetxoaren jarrera aldatzeko, gaztetxoak ez baitzuen hala sentitzen.

Beste hezitzaile baten bizipena aipatuko dizut: ingurune erdaldun batean jaio zen; familian, ez zuen jaso hizkuntza, eta eskolan ere ez; 15 urte zituela, erabaki zuen euskara ikastea, bere nortasuna euskaldun gisa eraikitze garrantzitsua iruditzen baitzitzaion euskara erabiltzea; eta, ahalegina eginez, euskaltegian euskara ikastea lortu zen. Hezitzaile bihurtu zenean, institutu batean lan egiten zuen, eta ikusi zuen institutu horretako ikasleek, txiki-txikitatik euskara jaso zutenek, ez zutela euskara erabiltzen; harridura sortzen zion horrek, ikasle haiek txikitatik euskara jasotzeko zortea izanik ere, ez baitzuten euskaraz hitz egiten, eta berak sekulako ahalegina egin behar izan baitzuen ikasteko. Beste bat zen gazte horien bizipena: txikitatik jaso zuten hizkuntza hori, baina, euren nortasuna edo talde-nortasuna eraikitze garaian, euskarak ez zeukan halako garrantzirik.

Horrelako kasuetatik abiatuta, ikusi genuen pauso bat atzera egin behar dugula hizkuntzaren erabilera zuzenduriko programetan: gazte eta haurrengana joan, eta hizkuntzaren gainean hausnarketa egin behar dugula ikusi dugu; dituzten usteak, zalantzak, iritziak... mahai gainean ja-

rri behar ditugula, iritzi horietatik abiatzeko, eta ez jarreretatik.

Hortik sortu zen Heziz programa. Psikologiaren eta soziolinguistikaren ikuspegiak hartzen ditugu kontuan. Psikologiaren ikuspegitik, jarrerengandaketa emozioek duten garrantzia kontuan hartzen dugu; hizkuntzaren inguruan norbanakoak dituen bizipenak eta emozioak kontuan hartzen ditugu. Soziolinguistikaren ikuspegitik, norbanakoari ere garrantzia eman behar diogula ikusi dugu; komunitateari eta hizkuntzari berari garrantzia eman izan zaio, eta komunitateari ez diogu daukan garrantzia kentzen.

Hizkuntzarekiko bizipenei buruz ari zarenean, ez zara euskaraz bakarrik ari.

Gaur egun, ez gara gaztelaniaz eta euskaraz bakarrik ari; hizkuntza gehiago daude, eta interesgarria da hizkuntza horiekiko zer-nolako bizipenak dauden ikustea; bai eta gurasoen jatorrien arabera hizkuntzak nola bizi diren ikustea ere. Hizkuntzen aniztasun horrek aukera asko ematen dizkigu gaur, egun gauza, horiei buruz pentsatzeko.

Ikuspegi soziolinguistikotik, pertsonari ere, norbanako gisa, garrantzi berezia eman nahi diozue orain.

Ez dugu komunitatea ahazten, komunitatean hitz egingo baitugu; eta, hizkuntza komunikazio den neurrian, gutxienez bi norbanakoren artean egingo dugu. Baina kolektiboak eta norbanakoak dituzten bizipenak eta emozioak uztartu nahi ditugu, hizkuntzaren ekologiaren ideia geure eginez.

Euskararen erabilera modu kolektiboan bultzatu izan da; “Euskara gure hizkuntza da!” esaldia horren adibide bat da. Baina, gaur egun, elementu berriak sortzen ari dira norbanako mailan, eta “euskaraz bizi nahi dut” esaldia da horren adibide. Oso aldarri emozionala da, eta gizabana-koan jartzen da fokua; “nik nahi dut

euskaraz bizi”; ez dio esaten beste inori nola egin behar duen, baizik norbanako horrek –“nik”– zer nahi duen azaltzen du.

Hizkuntza bat edo beste hautatzeko garaian, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko jarrera hartzen dugunean, kontzienteki egiten dugu hautua?

Hizkuntzen inguruan ditugun ideiek, pentsaerek, iritziek, eta abarrek osatzen dute hizkuntzen ideologia, eta diskurtso horren arabera portaera izaten dugu hizkuntzekin. Normalean, ideia horiek ez dira inkontzienteak izaten.

Hala ere, jendea ez da erabat jabetzen hizkuntza bati edo besteari buruz dituen iritzi eta usteez, eta guk, hainbat ariketaren bidez, ate batzuk irekitzen ditugu, haurrek eta gazteek hizkuntzaren inguruan pentsa dezaten.

Euskara hizkuntza zaila da, ala erraza da? Eta zergatik iruditzen zaizu

zaila dela? Zergatik erraza? Horren inguruan hausnartzean, konturatu gara mezu asko jaso ditugula, euskara zaila dela esaten dutenak; eta ikusi dugu horrelako ideia batzuk aurreiritziak direla eta ez direla benetan horrela. Hizkuntza primitibo izatearen inguruan ere hausnartzen dugu: euskara hizkuntza zaharra da, baina ez da berria?

Hizkuntza bakoitzari buruz ideia batzuk daude imajinario kolektibotan, aurreiritzi batzuk, eta ez soilik euskararen kasuan. Soziolinguistikari, ikusi da euskararen inguruan dauden aurreiritzi kulturalak munduko beste hizkuntza askotan ere errepikatzen direla.

Norberak bere kulturako alderdi positiboak nabarmentzen ditu, eta, horretarako, bestearen alderdi negatiboak ere nabarmentzen ditu; eta hori errepikatu egiten da kulturarteko kontaktuetan. Munduko aurreiritzien mapak ere lantzen ditugu. European, adibidez, ia hizkuntza guztietan kontsideratu izan da norberaren hizkuntza puruena, garbiena, edota literatura egiteko baliagarriena, eta besteena gutxietsi egiten da.

Munduko aurreiritzien mapa lantzean, argi ikusten ditugu horrelako gauzak, eta jarreretan eragiten duten usteen, iritzien eta ideologiaren atzean dauden alderdi guztiak azaleratzen dira. Iritzi horiektatik jaso ditugu, hizkuntzaren transmisioan ez baitugu hizkuntzaren corpusa soilik jasotzen (hiztegia, gramatika...), estatusa, jarrera, iritziak eta abar ere geureganatzen baititugu. Adibidez, bost pertsona elkarrekin gaudenean eta gutako batek euskaraz ez dakielako beste laurok gaztelaniara pasatzen garenean, transmisioz jaso dugun ohitura bat delako egiten dugu; ez dut uste norbanako bakoitzari naturalki ateratzen zaiona denik, baizik eta heziketaz jasotzen duguna. Horren guztiaren inguruan hausnartzeak asko lagunduko liguke.



Eta nola eragin daiteke aldaketa? Gaztetxo batek hizkuntza baten inguruan dituen ideiez hausnartuagatik ere, esan dezake “zergatik egin behar dut euskaraz”?

Lehendabizi, garrantzitsua da denok jabetzea, bai haur eta gazteak eta baita helduok ere, zein den gure abiapuntua. Jabetzea gazte horrentzat gaztelania dela modernoa, adibidez, eta jabetzea euskara ez zaiola moderno egiten. Orduan, gaztearen iritzi horretatik abiatuta, hezitzailea saia daiteke euskara ere modernoa dela erakusten, eta hainbatekimen proposatuko dizkio gazteari, iritzi hori ez dela benetan egia kontura dadin. Baina gaztearen jarreraren atzean dagoen motibazioa ezagutzen ez badu hezitzaileak, euskararen erabilera sustatzeko egiten dituen estrategia guztiak garai bateko estrategiak badira eta, adibidez, eskolan euskal jaia antolatzen badu, edota euskal dantzak, trikitixa eta pandero emanaldi batedota herri-kirolak antolatzen baditu eta horri “euskal jaia” deitzen badio, euskara iraganeko zerbaitekin lotuko du gazteak. Ez gara ari gazte horrentzat batere erakargarri egiten hizkuntza, eta euskara ez dela modernoa dioen haren aurreiritzi hori indartzen ari gara.

Baldin badakigu gazteei hip-hop eta futbola gustatzen zaizkiela, bada, agian, Hodei Barroso ekarriko dugu eskolara, hip-hop euskaraz egiten baitu, edo ekar dezagun Realeko jokalari bat. Era horretan, gazteen aurreiritzi horiek desmuntatuko ditugu, eta ikusiko dugu badaudela gauza modernoak euskaraz. Garrantzitsua da ikasle baten hizkuntza-jarrera aldatzeko hezitzaileok nondik nora jo dezakegun jakitea.

Zer baliabide erabiltzen dituzue haur eta gaztetxoek hizkuntza-jarreretan eragin dezazuen eta euskaraz egin dezaten?

Helburuak lortzeko, haur eta gaztetxoekin baliabide desberdinak era-

biltzen ditugu, adinaren arabera. Asko oinarritzen gara aisialdian betidanik erabiltzen ditugun teknikan eta baliabideetan: jolasetan, besteak beste, bizipenek leku garrantzitsua betetzen baitute jolasetan; talde dinamikak egiten ditugu; ikus-entzunezkoak ere erabiltzen ditugu, gaur egun aukera handia ematen baitigute, eta musika ere erabiltzen dugu, gaztetxoekin euskararen inguruko jarrera positiboak lantzeko.

DBHkoekin musika erabiltzen hasi ginenean, funtzionatu egiten zuela ikusi genuen. Musikaren bitartez, iritzi egiten zaie hizkuntza. Ez dugu soilik gazteei gustatzen zaien gaur egungo musika erabiltzen, hezitzaileoi gustatzen zaigun musika ere erabiltzen dugu; eta ezustekoak sortzen dira. Gustura ibiltzen dira kantuan, adibidez.

Guk proposamen bat egiten diegu, geure bizipenetatik abiatu: “Lehen aldiz duela 20 urte entzun nuen abesti bat jarri dizuet gaur, niri ikaragarri gustatzen zaidana...”. Norberaren bizipenetatik abiatu, errazagoa da gazteengan iristea, ez baitiezu esaten horrelakorik: “Abesti hau ekarri dizuet, eta gustatu egin behar zaiuzue”. Aitzitik, hau esaten diezu: “Niri gustatzen zait, eta proposatzen dizuet abesti hau entzutea eta kantatzea”.

‘Heziz’ programaren barruan, musika jarri dugu ikastetxeetan. DBHko 2. eta 3. mailtako ikasleei Negu Gorriak taldearen bideo bat jarri nien saio batean, eta hiru geletako 60 ikasleetatik inork ez zuen ezagutzen Negu Gorriak. 13-14 urteko gaztetxoek Negu Gorriak ez ezagutzeak zer pentsatua ematen dit: zer kultura ari gara transmititzen?

Eskolako bizipenetan oinarritzen zarete, ala haurrek eta gazteek aisialdian dituzten hizkuntza-portaeraz ari zarete?

Ikastaro jakin hau eskolari zuzentzen zaio, eskolan hizkuntzaren inguruan izan daitezkeen bizipenei ema-

ten diegu balioa. Gazteek eta haurrek eskolan dituzten bizipenak alor guztietan —baina kasu honetan euskararenean— garrantzitsuak dira bizitzako beste esparruetan ere, eta bizipen horiek gero etorkizunean garrantzia izango dutela ikusten dugu.

Baikorrak gara etorkizunari begira. Bizipenetatik abiatu hizkuntzen inguruko jarreretan eragin nahi izatean, oso zaila da epe motzeko emaitzak lortzea, baina guk uste dugu epe luzeko emaitzak lortzen direla. Irakasle asko kezkatu ibiltzen dira gazteek DBHn ez dutelako euskaraz hitz egiten, baina bizipenak landu badituzte eta emozio positiboak jasotzen badituzte, gu ziur gaude gero aterako dela, azalera dela. Kulturaren transmisioan dabiltzanek adierazten dute txikitako emozioek oinarri bat ezartzen dutela, eta azalera ateratzen direla gero, izan bizipen onak edo txarrak.

Ikasleen bizipenetan eta jarreretan esku hartu aurretik, agian irakasleen sentsibilizazioa egin behar litzateke lehendabizi, ezta?

Ikastaro hau horri begira antolatu da. Lehenengo, irakasleek eurek hausnar dezatela, klaustroan hitz egin dezatela hizkuntzen inguruan dituzten bizipenez, gogoeta egin dezatela... Eta familiekin ere landu daiteke.

Haur Hezkuntzan, duela hiru urte hasi ginen honako planteamendu hau probatzen: haurrek eskolan egiten zuten hizkuntzari buruzko hausnarketa, baina, gero, etxera eramaten zuten, eta, adibidez, gurasoei galdeetzen zieten ea noiz ikasi zuten euskara. Eta oso gauza politak atera ziren: “Euskara ikasten zu hasi zenezan hasi nintzen ni ere”... Horrelako ariketak egin ezean, familia askotan ez dira gai horiek ateratzen, eta polita da, seme-alabei azaltzea helduek hizkuntzaren aurrean duten jarrera, batzuek egin duten ahalegina edo beste batzuek ez ikasteagatik daukaten pena.

“Herri mailan euskal mitologiari buruzko dibulgazio-lana egitea falta da”



Ixabel MILLET

IPUIN KONTALARIA

Eskoletan euskal mitologia transmitzearen garrantzia azpimarratzen du Milletek, antzinako euskal jendeak mundua ulertzeko beste modu bat eskaintzen baitu: “Euskal mitologia oinordetzan jaso dugun zerbait da eta ezagutu behar dugu, ez haiek bezala bizitzeko, baizik eta eredu eta forma haiek ezagutuz aurrera egin ahal izateko”.

Mitologia antzinako erlijioa zela diozu.

Mitologia jainko eta jainkosen egoitza zen, erlijio-sistema bat, nahiz eta gerora beste esanahi bat hartu zuen eta sineskeriaren sinonimotzat erabili zen. Erlijio bat mitoek, sinesmenek eta erritoez osatzen dute. Eta berdin gertatzen da euskal mitologiarekin ere, hiru elementu horiek ditu. Mitoak ordea, ezin ditugu hartu hitzez hitz, historia irakurtzen ariko bagina bezala, beste dimentsio bat eman behar zaie, sinbolikoak baitira.

Beste dimentsio bat eman behar zaiola esaten duzunean, zer adierazi nahi duzu?

Sineskeriaren dimentsiotik erlijioaren dimentsiora igaro behar dugula. Jauzi hori ematea kostatzen zaigu. Badakigu mitoak ez direla sineskeriak, hori baino zerbait gehiago direla, baina ezin diogu forma eman, ez diogu ematen dagokion dimentsioa eta lekua. Eta hori euskaldunok egiten ez badugu, besteek ere ez dute egingo.

Mitologiaren munduan ipuinen bitartez sartu nintzen. Ikertzen hasi nintzen eta euskal mitologiaren zegoena irakurtzen. Euskal Herrian bertakoek diotena irakurri ostean, besteek kanpotik euskal mitologiaren zer dioten irakurtzeko grina piztu zitzaidan. Baina deus ez nuen aurkitu. Ez da aipatu ere egiten. Munduko mitologiei buruzko liburu batean ager daiteke Afrikako 50 kideko tribu baten mitologiari buruzko zerbait, baina euskal mitologiari buruz ez dago ezer, nik behintzat ez dut topatu. Horregatik diot, euskal mitologiari guk eman behar diogula forma eta lekua, eta hori egiten dugunean besteek ere aintzatsiko gaituztela. Horrekin ez dut esan nahi lanik ez denik egin; lan garrantzitsuak egin dira, baina herri mailan mitologiaren ikuspuntu orokorren dibulgazio-lana egitea falta da.

Zer garrantzi dauka euskal mitologiaren transmisioak? Zergatik erakutsi behar da eskoletan?

Mitologia greziarra transmititzen baldin bada, are gehiago transmititu beharko litzateke euskal mitologia.

Euskal kulturaren parte da. Altxor bat da. Euskal mitologia berezia eta propioa da gainera, eta beraz, inportantea da ezagutzea. Gainera, gaur egungo krisi egoeran etorkizun berri bat sortu beste aukerarik ez zaigu gertatzen, eta horrelako kasuetan atzera begiratzen dugu normalki. Euskal mitologia ezagutzen denean, gizartea bera ere beste era batez ikusten da.

Eta ezagutzen al dugu behar beste euskal mitologia?

Bakoitzak ezagutzen du ezagutzen duen punturaino. Oraingoan pertsonaiak eta mitoak ezagutzen dira, eta ez da gutxi, baina nik orain beste pauso bat ematea proposatu nahi dut, eta mitoetako pertsonaien arteko harremanak zeintzuk diren ezagutzea, eta elementu guztiak ordenean jarritz, euskal mitologiaren kontzeptuari zentzua, koherentzia eta osotasuna ematea. Mitologia, azken finean, irudikapen sinbolikoa da. Horregatik nik Gernikako Arbola ere mitologiaren inguruko azalpenetan sartzen dut, jendea harritu egiten den arren, hori ere sinbolo mitiko bat baita.

Zeintzuk dira euskal mitologiaren pertsonaia nagusiak?

Mitologian badira bi plano: plano fisikoa eta plano kontzeptuala. Plano fisikoan daude, Eguzki, Amalur, Ilargi, Urtzi... Mundu kontzeptualean daude, beste aldetik, Mari, Basajaun-Basandereak, Lamiak... daude, gutzietan jainu diren pertsonaia. Gutzietan garrantzitsuenak emazteak dira.

Zentzu horretan, badu euskal mitologiak besteek ez duten berezitasunik?

Baditu bi berezitasun: animismoa eta emetasuna. Munduan zehar animismoa ez da berezitasun bat, baina gure Europa monoteistan bai. Animismoa edozein izaki—jende, animalia, landare, harri, etab.—arimaz, zentzu zabalean harturik, hornitu daitekeela sinestea da, eta egun superstizioa deitzen zaio.

Bigarrena, emetasunaren presentzia da. Baina aztertu behar da emetasun hori zer den. Emetasuna bizia sortzeko gaitasunaren adierazlea da. Haurrak sortzeko gaitasuna emazteok dugu, eta literalki ulertuz gero, emetasuna emakumearen sinonimoa dela erraten ahal da. Baina hori ikuspuntu murriztailea da, haratago joan eta zabaldu egin behar da ikuspegia, bertzenaz maila literalean geratuko gara, azalean, sineskerietan eta sorginak jende gaiztoak soilik zirelakoan. Maila igo behar dugu, eta maila sinbolikora jauzi egin. Han gauzek zentzua hartuko dute.

Maila sinbolikora jauzi egitea aldarrikatzen duzu. Adibide konkreturen bat jar dezakezu?

Esate baterako, Mariren kasuan, pentsatzen baldin badugu Mari benetakoa emakumea zela, kobazuloetan bizi izan zela eta benetan argizko bola bat bailitzan ibiltzen zela, bada, ez diogu zentzurik aurkituko. Marik beste balio bat zuen. Horrelakoetan komeniko litzaiguke antzinan bizi-modua nolakoa zen irudikatzea. Gu etxeetan bizi gara, argindarrarekin, telebistarekin... Eta nahiko ziur sentitzen gara. Ekaitza etortzen denean eta trumoiak jotzen duenean, etxetik, gozo begiratzen dugu, baina kobazulo batean bizi bagina eta ekaitz hori zer den arrastorik ez bagenu, imajinatu zer nolako beldurra senti geneza-

keen. Horregatik, beste begirada mota batekin ikusi behar ditugu mitologiako kontakizunak, hori guztia beste era bateko munduan gertatu zelako.

Mitologiaren bidez zer ikasten dute haurrek?

Besteak nola bizi ziren ikasten dute, haien sinesmenak nolakoak ziren, nola ikusten zuten mundua... baina gurean bertan, Euskal Herrian bertan. Gero munduaren beste puntan beste era bateko jendea dagoela ikusiko dute, gureak ez bezalako beste bizi-moduak, sinesmenak eta munduaren irudikapenak ere badirela.

Euskal mitologia transmititzeko irakasleek zein baliabide izan ditzakete?

Orokorki mitoen eta pertsonaien inguruko ezagutza badute, baina maila sinbolikorako jauzia egin ahal izateko material gutxi dago. Hutsune hori betetzeko proposamena egitea da nire asmoa. Proiektua jada martxan dago, baina mantso doa dirurik ez dagoelako.

Mitologiak nola eboluzionatu du? Zein toki betetzen zuen lehen, eta zein toki betetzen du gaur?

Mitologiak gizakiekin batera eboluzionatu du. Adibidez, plano fisikoan Amalur zena, plano kontzeptualean Mari bilakatu zen gero. Gizakia garatu zen heinean, haren sinesmenak ere garatuz joan ziren. Amalurra oso fisikoa da, kultura hartan ere elementurik inportanteenak fisikoak izango zirelako. Gero, errealitatea kontzeptualagoa izatera pasa zen, eta hori agertu zen Mari. Azken batean gizataldearen garapenaz ari gara hizketan, garapen kolektiboaz, ez indibidualaz.

Mitologia antzinako erlijio bat da, praktikatzen ez den eta hilik dagoen erlijio bat. Lehenengo nekazaritza-

munduan naturarekiko harremanek leku handia hartzen zuten, eta mitologia mundu hartan gertakizunei zentzua emateko baliabidea zen. Munduaren irudikapen bat zen, guk gaur izan dezakegun beste bat bezalaxe.

Orduan, gaur egungo gizartean zertarako balio dezake?

Balio du euskal kultura ezagutzeko, gure historia ulertzeko, eta arbasoen sinesmenak zeintzuk ziren, mundua nola irudikatzen zuten jakitzeko. Guk orain bertan sinesten dugu Big Bang-aren teorian, sinesten dugu birusak daudela eta zientziak kontatzen digun guztia. Euskal mitologian barneratzen garenean gauzak beste era batez ikusten ditugu. Mundua nolakoa zen irudika dezakegu, eta konturatuko gara, adibidez, norbait gaixo jartzen zenean Inguma etorri zela erraten zen, eta orain gauza bera azaltzeko birus bat etorri dela esaten digute medikuek. Sarritan, ordea, ez dakigu benetan zer gertatzen zaigun. Aurreko mendean, zientziak zabalpen izugarria izan zuen eta bazirudien guztiari erantzuteko gai zela, baina konturatu gara zientziak ere mugak dituela. Denok sinesten dugu Big Bang teorian, baina inork ez dugu hori ikusi. Agian 300 urte barru beste teoria hobe bat aterako da eta guri barre egingo digute Big Bang-ean sinestegatik. Horrek ez du esan nahi zientzia baliagarria ez denik, baina beste alderdi batzuk ere kontuan izan behar ditugu eta horietako bat da mitologia.

Antzinako euskal jendeak mundua ulertzeko eskaintzen digun beste modu hori begirunez tratatu behar dugula iruditzen zait. Euskal mitologia oinordetzan jaso dugun zerbait da eta ezagutu egin behar dugu, ez haiek bezala bizitzeko, baizik eta eredu eta forma haiek ezagutuz aurrera egin ahal izateko.

Eskola emozionala

“Estres eta kontzentrazio-arazo ugari izaten dira eskoletan; horiei aurre egiteko balio dute guk irakasten ditugun teknikak”



Oihana MEABE

PEDAGOGOIA ETA KINESIOLOGOIA

Pertsona bati kalte egiten dioten pentsamenduak identifikatzen, desegiten eta horien ordeztu pentsamendu onuragarriak sortzen laguntzen du Eskola Emozionalak. Irakasleentzat baliagarria izan daitekeela uste dute adituek, ez soilik euren burua hobeto ezagutzen eta kontrolatzen ikasiko dutelako, baita ikasleak erlaxatzeko eta kontzentratzeko balio duten teknikak ezagutuko dituztelako ere.

Asko hitz egiten da azkenaldian emozioek eragindako gaitzez. Ikerketek diote gaur egun biztanleen %8-10ek antsietatea edo estresa duela, eta %15ek, berriz, depresioa. Datuok antzekoak dira irakaskuntzaren alorrean ere, irakasleena osasun-arazo horiek jasateko arrisku handiena duten lanbideetako bat dela uste baita. Horrexegatik, XXI. mendeko erronka berriei aurre egiteko, irakasleak zein ikasleak gaitasun emozionalan trebatu beharra dagoela diote heziketa emozionalako adituek.

Arlo horren barnean kokatzen da Eskola Emozionala ere. Estresa desegitea du jomuga, bai eta pertsonen euren egoeraren kontzientzia hartzen laguntzea eta pertsonaren barruko antsietatea murriztuz haren errealitatea eraldatzea ere. Hernanin jaiotako Yael Martinez kinesiologoak eta neuropatak sortutako eskola da, eta horren gaineko prestakuntza Donostiako Aukeran hezkuntza- eta zaintza-zentroan jaso daiteke. Zentro horretan aritzen da Eskola Emozionalaren inguruko jakintza euskaraz irakasten eta lantzen pedagogian lizentziatutako Oihana Meabe kinesiologo eta instruktorea. 15 urte inguru daramatza emozioen inguruan lanean, eta gai horri buruzko ikastaroa emango du Hik Hasiren Udako Topaketetan.

Meabek azaldu duenez, pertsona orok emozioak ditu: beldurra, pena, kulpasentimendua, sinpatia, poza... Eta, pertsonaren bizitzan zerbait gertatzen denean (istripu bat, erlazio desatsegin bat...), emozio horiek loratu

egiten dira, eta pertsonaren garunetik pasatzen dira: “Gure eremu mentalak emozio hori iragazten duenean, bi jarrera har ditzakegu: bizitzen ari garen egoera zorigaiztokoa irudi dakiguke, edota errealitate horretatik zerbait ikas genezake. Eskola Emozionalaren bidez, egoera horiei etekin positiboa ateratzen irakasten dugu”. Izan ere, Eskola Emozionalak bizitza jolasa balitz bezala hartzen du. Teoria horren arabera, jolas batzuek pertsonen onura besterik ez diete eragiten; beste batzuek, aldiz, estres handia sortzen diete. Horrexegatik, pertsona horiei estresa disolbatzen eta egoera desatsegin hori aldatzen irakasten die Eskola Emozionalak, bizitzako jolasa estresik gabe eramaten, hain zuzen.

Horretarako, hainbat teknika erabiltzen ditu: tentsio emozionala askatzeko teknikak (irudi baikorrak, begi-positzioak...), Bach loreak, martxa gurutzatua, energia orekatzeko puntuak, kinesiologia, Oshoren kartak, etab. Teknika horietako bakoitzak energia motaren bati eragiten dio (mentala, emozionala, fisikoa, espirituala...). Izan ere, Eskola Emozionalak oreka bilatzen du energia mota horien guztien artean, pertsona bere osotasunean ulertzen du, eta, alderdiren bat desorekatuta badu, besteei negatiboki eragin diezaiekeela uste du.

Teknika horiek oso praktikoak eta erabilgarriak dira, Eskola Emozionalako adituen esanetan, eta iraganeko, orainaldiko nahiz etorkizuneko edozein auzi tratatzeko balio dezakete. Honako adibide hau eman digu Meabek: “Demagun pertsona batek hemendik hilabetera lan-elkarrizketa bat daukala eta oso urduri dagoela. Pertsona hori urduri badago, bere alderdi inkontzientean elkarrizketa ho-

retara lasai joatea eragozten dion pentsamenduren bat duelako da. Eskola Emozionalako tekniken bidez, pertsona horri kalte egiten dion pentsamendu hori zein den identifikatzen laguntzen zaio. Pentsamendu hori desegiten zaio, eta, horren ordez, elkarrizketarako onuragarri izango zaion beste pentsamendu bat txertatzen zaio”. Izan ere, Eskola Emozionalaren premisetako bat zera da: pertsonak pentsatzen duen horrek eragiten du pertsona hori den bezalakoa izatea, baina baita duen ingurunea edukitzea ere: “Inkontzientean bada zerbait, nire errealitatea horrelakoa izatea eragiten duena. Ordenagailuen antzekoak gara: nire txipa aldatzen badut, ni aldatzen naiz, eta nire ingurunea aldatzen da”.

Ikasleekin erabiltzeko hainbat teknika

Eskola Emozionalaren gaineko prestakuntza jasotzea edonorentzat oso baliagarria izan daitekeela uste du Meabek, bereziki irakasleentzat: batetik, euren burua hobeto ezagutzeko eta, horren ondorioz, ikasleekin hobeto lan egiteko balio diezaiekeelako, eta, bestetik, zenbait teknika zuzenean ikasleekin aplikatzeko aukera ematen dielako: “Gaur egun, estres eta kontzentrazio-arazo dezente izaten dira eskoletan, eta Eskola Emozionalak ematen dizkigun irakaspe-nak oso baliagarriak dira horiei aurre egiteko”. Adibidez, zentratuta egoteko baliabideen artean, bada “martxa gurutzatua” izeneko teknika bat: besoak eta hankak mugituz egiten den ariketa fisiko bat da, eta buruaren bi hemisferioak zentratzen laguntzen du: “Ariketa hori eginda, beste edozein jarduera egiteko askoz ere zentratuago egongo da umea”. Gorpu-

tzeko puntu batzuk hatzekin ukituz energia orekatzeko metodoak ere erabiltzen ditu Eskola Emozionalak, eta horiek ere jar daitezke praktikan ikasleekin. Meabek dioenez, energia-autobide moduko batzuk daude pertsonaren gorputzean; puntu jakin batzuetatik igarotzen da energia, eta puntu horiek erabil daitezke pertsona lasaitzeko (oso aztoratuta badago) edota indarra emateko (energia gutxi badu).

Meabek bere semearen ikasgelan hainbat teknika praktikan jartzeko aukera ere izan du, eskolako irakasleek hala eskatuta. Gatazka bat zeukaten ikasgelan, eta, era batera eta bestera konpontzen saiatzen ziren arren, ez zuten lortzen. Meabek tentsio emozionala askatzeko ariketen saio bat prestatzea erabaki zuen. Erlaxazioarako musika erabili zuen, eta irudi positiboen teknika ere bai, haurren tentsioa arintzeko eta haien jarrera baikorrago bihurtzeko. Emaitza ikusgarriak lortu zituen: umeak izugarri lasaitu ziren, ikuspegia eta jokamoldea aldatu egin zituzten, eta gatazka disolbatu egin zen.

Meaberen iritziz, pertsonaren buruak eta gorputzak ahalmena dute pertsona bera aldatzeko, bai eta bere ingurunea aldatzeko ere: “Emozioak nire buruko filtrotik era batera edo bestera pasatu, horren arabera bizitza izango du. Egoera baten aurrean emozio jakin bat badaukat eta emozio hori min ematen didaten pentsamenduekin elikatzen badut, estresa sortzen dut, eta gorputzean eragina izan dezake estres horrek. Aldiz, estres horren aurrean gatazkari edo arazoari zentzua ematen badiot, zer gertatzen ari den jabetzen banaiz eta alde positiboa ateratzen badiot, ez du ondorio fisiko kaltegarririk izango”.

Gorputza tresna pedagogiko gisa



Eneko BALERDI

DANTZARIA ETA IRAKASLEA

Gorputzari hizkuntza trataera ematen dio Balerdik, beraz, hizkuntza gaitasun hori egoki garatuz, norbere emozio eta pentsamenduak adierazteko balio duela dio, besteekin harremanetan jartzen laguntzen duela eta hezkuntza testuinguruetan erabilgarri bilaka litekeela Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn.

Gorputza behatzea proposatzen du Eneko Balerdik, ezagutzea, entzutea, sentitzea. Lantzea. Eta ikas-tresna bilakatzea. Gorputza erreminta gisa baliatzeko, abiapuntu gisa, nork bere soinarekin duen harremana aztertzea aholkatzen du. Ariketa hori kanpotik zein barrutik egin daiteke; kanpofuntzioei nola erantzuten dien aztertuz, edo barrutik sentitu liteke, gure organismoak, arnasketak... nola egiten duten lan behatuz. Balerdik era integralean behatzea proposatzen du.

Dantzatik egin du hezkuntzara bidea Eneko Balerdik. Dantza garaikideko ikasketa eta Eszena zuzendaritza ikasketak egin zituen lehendabizi,

eta Hezkuntzaren Psikologia ondoren. Gaur egun Huheziko irakaslea da. Hezkuntza dekretuak markatzen dituen oinarriko hezkuntza-gaitasunak garatzeko gorputz-esperientzia tresna gisa erabiltzea proposatzen du, bai Haur Hezkuntza, baina baita hortik aurrera ere.

Gorputzari hizkuntza trataera ematen dio Balerdik, “ez linguaia bakar baten moduan ulertua, baizik eta linguaia anitz gisa ulertua, gorputza pertsona bakoitzaren linguaia bakana izango dela ulertuta”. Beraz, beste hizkuntzak bezala, gorputz adierazpidea ere garatu egiten dela defendatzen du, espresio murriztatutik diskurtso zabal batera arte –sentimenduak nahiz pentsamendua adierazteko baliabide bikain izan arte–. Ezagututa eta landuta, hezkuntza-estrategia aski baliagarria da gorputza Huheziko irakaslearen aburuz. “Beste hizkuntzekin bezala, gorputzarekiko gure alfabetizazio-maila ezberdina da, hitz egin denok hitz egiten dugu hizkuntza horretan, baina askotan ez gara kontziente zer esaten dugun edo zer entzuten dugun”. Irudi-hizkuntzarekin parekatzen du gorputz-hizkuntza Balerdik: “Egunero ari gara irudien bidez mezuak jasotzen publikitatean, baina askotan ez gara mezu inplizitu horiez kontziente; bada gorputzarekin gauza beretsua gertatzen da, etengabe darabilgu bai harremanetan, komunikazioan, gizartean... baina batzuetan ez gara kontziente nola erabiltzen dugun”.

Norberaren gorputz hizkera esploratu eta eraikitzea proposatzen du, emozioen inguruko diskurtsoak, ideia intelektual edo kognitiboak

adierazi ahal izateko. Curriculumak esplizituki esaten du barneerreferentzien eta kanpo erreferentzien kontzientzia esnatu behar duela eskolak haurrengan euren mugimendua garatzerakoan. Gorputza esploratzeko, lehendabizi barnebidiaia bat egitea proposatuko die irakasleei –irakasle horiek gero ikasleei proposatu ahal izateko–. Erlaxazioarekin hasi eta bakoitzaren gorputza barruan nola mugitzen den behatzen, “kontzientzia fisikoa garatzen”, lagunduko du, gorputza geldi dagoenean nola dagoen sentitzen, mugitzen denean zer aldaketa gertatzen den ikusten...

Dantza eta gorputz-hizkuntza hezkuntzarako estrategia moduan aurkeztean HHrako eta LHRako nahiz DBHrako proposamen desberdinak egiten ditu irakaseak, HHko lehen etapan bereziki zailagoa baita gorputzaren kontzientzia hitzez azaltzen. Ondoren, hitzaren laguntzarekin, edukiak gorputzetik pasatzea proposatzen du Balerdik, hau da, edukiak gorputza tresna pedagogiko gisa erabiliz barneratzea.

Gorputz-hizkuntza edukiak lantzeko baliabide izan dadin, bi metodo erabiltzen ditu Balerdik, CLIL eta Learn Physical metodoak. CLILek ikasgai dugun hizkuntza jakintza berri bat barneratzeko prozesuaren ardatz gisa jartzea proposatzen du, esate baterako, ingelesaren bitartez beste jakintza batzuk –natur zientzietakoak, esate baterako– barneratuz hizkuntza hori berau jabetzea. Learn Physical metodoak horixe bera proposatzen du baina gorputza ardatz harturik eta ikasketa-esperientziez gorputzaren bitartez bideratuz.



Irrien Lagunak Klubaren
Gizartegintzarekin
elkarlanean

Harrerako haurren hezkuntzari begirada sakon eta sistemikoa

“Harrerako hurrei sentimenduak adieraztea kosta egiten zaie, oro har; hortaz garrantzitsua da alderdi emozionala lantzea”



Goizargi IGLESIAS

BEROA ELKARTEA

Harrerako familietan dauden haurrek hezkuntza-esparruan izan ditzaketen arazoei aurre egiteko sentsibilizazioa eta formazioa behar dituzte irakasleek. “Trauma”, “erresilentzia”, “bizimina”, “zorioneko gizartea” edota “hezkuntza kooperatiboa” hitz soil baino gehiago dira Beroa elkartearentzat eta euren berezko familietatik atera dituzten neska-mutilentzat.

Zer dira harrerako familiak?

Familia-harrera baliabidea Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan duen baliabideetako bat da, haur-nerabeen babesera bideratua. Egoera latza, kritikoa edota berezko familiak haur horien ardurara ondo bete ezin duenean, babesik eman ezin dienean, Gipuzkoako Foru Aldundia haur horien kargu egiten da, beraiek zaintzen di-

tuzte eta familietatik kanpo ateratzen dituzte. Haur bat bere familietatik kanpora ateratakoan, ume horren garapenerako egokiena familia-eredu bat izatea dela aurreikusten bada, familia-harrera baliabidean sartzen dute.

Harrerako familiez hitz egiterakoan ez da familia-eredu nuklearretan pentsatu behar, familia-eredu anitzak dira; guraso bakarrekoak, sexu bereko bikoteak... familia modu zabal eta anitzean ulertzen dugu familia-harreretan.

Beroa elkarteak zer eskaintzen du?

Duela 15 urte sortu zen, baliabide honetan parte hartzen zuten familiek kolektibo bat sortzeko beharra ikusi baitzuten, dauzkaten egoera berdintsuetatik ikasteko, partekatzeko, elkarri babesa emateko, etab.

Pixkanaka garatuz joan da egitura eta, gaur egun, familia hauei eremu bat eskaintzen zaie beraien artean gauzak komentatzeko eta, horrez gain, ikastaroak eta formakuntza-saioak eskaintzen zaizkie. Beste alde batetik, haurrekin ere hainbat proiektu egiten ditugu. Badira, adibidez, familia ezberdinetan dauden nebarrebak, eta haiei eremu bat ematen zaie elkarrekin egoteko, elkartzeko... Azken finean, gurasoek dituzten behar berdintsuak dituzte haurrek ere. Harrerako familietan dauden haurrek ere, askotan, antzeko egoerak bizi izaten dituzte, “bi ama eta bi aita” dituztela esaten dutenean, edo konturatzen direnean bere familiek abizen berdinak ez dituzte-

la... Gurasoek bezala, haurrek eurek ere behar dute talde bat, kolektiboa, beraien artean gauzak komentatu, nola sentitzen diren adierazi, etab. egiteko.

Bestalde, Etxe Gorriaren kudeaketa ere eramaten dugu, haurra eta familia biologikoaren arteko bisitaldiak egiten diren eremua da hori. Eta horrez gain, sentsibilizazio- eta erakartzeko-kanpainak ere egiten ditugu.

Harrerako familietan dauden haurrekin lan egin behar duten irakasleek, zer izan behar dute aintzak? Nola egituratuko duzue ikastaroa?

Familiei eta irakasleei begira antolatuko dugu ikastaroa, hezkuntza-munduan harrera familietako haurrek dituzten garapenerako arazoei nola aurre egin landuko dugu. Bai etxean zein eskoletan arazo antzekoak egon ohi dira, eta, gainera, askotan errepikatu egiten dira arazo horiek; nola egin aurre eta gertaeren aurrean nola jokatu landuko dugu.

Harrerako familietan dauden haur eta gazte gehienek, alderdi emozionala kudeatzeko zailtasunak izaten dituzte, sentimendu eta afektibitate gaitan oso “ukituak” daude eta, eta sentimenduak adieraztea eta nola dauden esatea kosta egin ohi zaie. Horrexegatik, emozioen kudeaketari begiratu nahi dio ikastaroak.

Bisitaldien gaia ere landuko dugu. Harrerako familietan dauden haurrek beraien jatorrizko familiekin bisitaldiak izaten dituzte eta testuinguru horretan denetarikoa goerak aurki dai-

tezke. Horregatik, bisitaldiaren aurretik eta ondoren ere haurren egoera zaila izaten da, eta beharrezko izango dugu ikastaroan, "trauma", "erresilientzia", "bizimina" eta "zorioneko gizartea"... bezalako kontzeptuen inguruan hitz egitea. Hezkuntza kooperatiboak egin ditzakeen onurak edota gai hauek ikasgelan nola landu eta horrelako egoerei nola buelta eman ere ikusiko dugu.

Harrera familietan zer adinetako haurrak hartzen dira, umeak, nerabeak, gazteak...?

Berez 0tik 18 urtera bitarteko haurrei egiten zaie harrera, hau da, adingabeak diren bitartean. Haurra familia batera bideratzeko orduan, harrerako familiaren nahiak edo ezauzgarriak ere kontuan hartzen dira; adibidez, 6-7 urteko seme-alabak badituzte, adin antzeko haurren bat nahiago izango dute, edota seme-alabarik ez badute nahiago dute haur txikiago bat, etab. Familiek ez dituzte haurrak aukeratzeko, baina beraien profilerak gehien hurbiltzen den umearekin lotura egiten saiatzen gara. Horretarako, garrantzitsua da familiak politikoki zuzena izan beharrean, zintzoa izatea eta bere nahi eta beldurrei buruz argi hitz egitea. Balorazio-momentuetan horrelako jarrerak asko eskertzen dira, harrerako familien egitekoa ez baita "izena ematea eta kito". Guri interesatzen zaiguna da bai haurra zein familia ondo egotea, gustura egotea, prozesu guztia ondo joatea. Horrela ez bada, familia-harrerak ez du aurrera egingo.

Momentu honetan badago nahikoa harrerako familia? Gehiago behar dira?

Gehiagoren beharra dago. Gainera, orain legea aldatuko da, eta lege berriak dio, 0-3 urte bitarteko haurrek harrerako familietan egon behar dutela, ez harrerako pisuetan. Horregatik, harrerako pisuetan dauden 0-3 urte bitarteko haur guztiak, familietara pasatu beharko dira eta haur horiek etxeetan hartuko dituzten familiak behar dira.

Zer egin behar da harrerako familia izateko?

Lehenengo informatu, oso garrantzitsua da ondo informatzea; eta behin erabakia hartutakoan, Laukara joatea da hurrengo pausoa. Lauka harrerako familia izateko balioztatzeak egiten dituen erakundea da. Erakunde horrek, elkarrizketa eta testen bitartez balorazioak egiten ditu, eta positibo emanez gero, itxaron zerrendan sartzen da familia hori, norbere profilarekin bat datorren haurren batek familia baten beharra izan arte. Momentu hori iristean, egokitzapen-

prozesua hasten da, eta egokitzapen etapa hori haurra etxera eraman arte luzatzen da. Bestalde, herritarrak informatzeko, hainbat herritan hitzaldiak ematen ditugu, edota Beroara deituz gero, hitzordu informatiboak ere egiten ditugu.

Haurrak zenbat denbora egon ohi dira, gutxi gora-behera, harrerako familietan?

Gipuzkoan harrera soilak eta iraunkorrak daude. Harrera soilak, bi urte baino lehenago bere berezko familia bueltatu ahal izango dela aurreikustean ematen da. Iraunkorra, aldiz, bere berezko familia bueltatzeko zenbat denbora beharko den aurreikusi ezin denean izatean da. Harrerako familiaren baliabideen helburu nagusia haurra bere berezko familia itzultzea da. Baina askotan, familia oso desegituratuak izaten dira, eta itzulera hori ez da erraza izaten. Gipuzkoan dauden harrera gehiengoak iraunkorrak dira, soiletik hasten dira, baina helburuak betetzen ez badira, soiletik iraunkorrera pasatzen dira.



Animaliek lagundutako esku-hartzeak

“Animaliek ez dituzte pertsonak epaitzen, beti modu berean gerturatzen dira haiengana”



Josune AZPIROZ

BOCALAN BIAK BAT ELKARTEA

Buruko gaixotasunak dituzten pertsonen, ezgaitasunak dituztenei edo gizartetik at geratzeko arriskuan daudenei animalien bidez laguntzen die Bocalan Biak Bat elkarteak.

Zer da Bocalan Biak bat?

Bocalan fundazioaren Euskal Herriko delegazioa da, Irabazi asmorik gabeko elkarte da eta Irrien Lagunen Gizartegintza elkartearen parte da.

Animalien laguntzaz, ezgaitasunen bat edota gizartetik at geratzeko arriskua duten pertsonen integrazioan laguntzea da helburua. Animaliek lagundutako terapia eta animaliek lagundutako hezkuntza-proiektuak egiten ditugu eta laguntza-txakurrak hezten ditugu, ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko.

Zein animaliarekin egiten duzue lan?

Gehienbat txakurrekin, baina baita baserriko animaliekin ere, astoekin eta zaldiekin esate baterako. Baserria eta bere eremua ere erabiltzen ditugu elementu terapeutiko eta hezkuntza eremu bezala.

Nortzuk egiten duzue lan Bocalan-en? Zer profesional profil dago?

Talde multidiziplinarretan lan egiten dugu; psikologoak, txakur hezitzaileak, albatariak, gizarte hezitzaileak, haur hezkuntzako teknikariak, logopedak, etab.

Eta zeintzuk dira Bocalanek eskaintzen dituen zerbitzuen “hartaileak”?

Ezgaitasunen bat duten pertsonen egiten dugu lan, haur, gazte zein heldu. Haurren kasuan, autismoa, Down sindromea, gaixotasun arrarokak edota garun paralisia dutenekin aritzen gara. Alzheimerra eta demenztzia ezberdinak dituzten helduekin ere lan egiten dugu eguneko zentrotan, eta gizartetik at geratzeko arriskua duten gazteekin ere jarduten dugu baserri eskola batean.

Bestalde hezkuntza eta aisialdi inklusibora begira ere egiten ditugu proiektuak eta proiektu horietan, nahi duen orok parte har dezake.

Nola lagun dezakete animaliek hezkuntza-prozesuetan?

Animaliek ez dituzte pertsonak epaitzen, beti modu berean gerturatzen dira haiengana. Zentzumen ani-

tzei zuzenduriko estimuluak, uneoro “gauzak” eskatzen ari dira, “etorri hona”, “eraman hau”, etab. Lasai egoten, erlaxatzen laguntzen dute animaliek, eta haien eta pertsonen artean sortzen den interakzioak onura izugarriak ditu. Txakurren kasuan, adibidez, txakurrak modu espezifiko batean entrenatuta daude, eta interakzio sozialetan arazoak dituztenengana helden laguntzen digute, beraiengana hurbiltzen.

Nola egituratu duzue ikastaroa? Zeri emango diozue garrantzia?

Ikastaroan animaliek lagundutako esku-hartzeak zer diren argi gertatzea nahiko genuke, eta horretarako teoria eta praktika uztartuko ditugu. Txakurrak eramango ditugu eta hainbat kasu praktiko azalduko dizkiegu bertaratutakoei, beraiek saioak diseinatu ditzaten. Ondoren, saio horiek praktikan jarriko ditugu “roll playing” biartez.

Hartaileen profilararen arabera egokituko ditugu saioak, hezkuntza arloko profesioanalarak badira, hezkuntza-proiektuetan jarriko dugu indarra, eta osasun arlokoak badira, hainbat terapia landuko ditugu.



IRRIA aldizkaria gelan? Noski baietz!

“Euskara, ekologia, berdintasuna... balio horiek sustatu nahi ditugu; eta guztiaren gainetik, irakurzaletasuna bultzatu”



Josi OIARBIDE

IRRIEN LAGUNAK KLUBA

2-8 urte arteko haurrentzako euskarazko aldizkari baten beharra ikusita sortu zen *Irria*. Idazle eta ilustratzaile sonatuen laguntzaz balio hezitzaileak transmititzen ditu.

Noiz sortu zen *Irria* aldizkaria eta zergatik?

Duela lau urte sortu zen. Katxiporreta, Berria eta Elkar argitaletxearen artean gogoeta bat egin genuen eta konturatu ginen hutsune bat zegoela, haurrentzako aldizkari baten hutsunea, hain zuzen. Bere garaian Ipurbeltzek betetzen zuen lekua, gero beste proiektu batzuk hartu zuten lekua Xirrista, Nanai... baina desagertuz joan ziren. Eta, gaur egun, teknologien garaia izan arren, haur txikien kasuan uste dugu aldizkariak zentzua duela, bai beraiek modu autonomoan irakurtzeko eta baita gurasoekin batera ipuinak irakurri eta aldizkariko kontuak komentatzeko ere.

Zer adin tarteko haurrei dago zuzendua *Irria* aldizkaria?

Guk erreferentzia bezala, Frantziako Bayar argitaletxea hartu genuen, eta 2-8 urte bitarteko haurrei zuzentzea adostu genuen. Bayar argitaletxeak, frantsesez, espainieraz zein katalanez argitaratzen du, eta 3 aldizkari ditu adin tarte horretarako: 2-4, 4-6 eta 6-9. Guk produktu bakarra dugu Bayarrek 3 dituen lekuan eta oreka lortzea zaila da. Kontuan hartu behar da hizkuntza minorizatua gaila, eta beste herrialdeetan aldizkari ugari badituzte ere, hemen aldizkari batentzako lekua soilik dagoela. Gure kasuan, bestalde, aldizkaria gure pertsonaia berriak ezagutarazteko aukera ona zela ikusi genuen.

Zer balore lantzen dituzue aldizkarian? Zeri ematen diozue garrantzia?

Guk Irrien Lagunak sortzerakoan bost oinarri hartu genituen ardatz: zientzia, elkartasuna, kultura, osasuna eta natura. Bost lerro horiek indartzeko pertsonaia berriak sortu genituen: zientzian Mari Kalanbre eta Mari Txinparta; elkartasuna lantzeko, Ane pirata eta Patakona; kulturean Martinbertso; osasunean Tiritatxo eta naturan Largabista. Euskal Herria-Euskal Irria haintzat hartuta, eta euskartatik eta euskaraz, ekologia, berdintasuna eta bost zutabe horietatik eratorzen diren hainbat balore transmititzen ahalegintzen gara.

Nork hartzen du parte *Irria* aldizkarian?

Idazleen aldetik, haur eta gazte li-

teraturan adituak eta entzutetsuak diren pertsonak: Unai Elorriaga, Mitxel Murua, Harkaitz Cano, Pako Aristi, Juan Kruz Igerabide etab. Bertsolaritzatik etorritako jendea ere badugu, besteak beste, Beñat Gaztelumendi, Uxue Alberdi eta Miren Amuriza. Eta ilustratzaile bezala, Katxiporretaren munduari hasiera eman zion Julian Tokeroz gain, Juanma Berasategi eta bere taldea (Kalabaza Tripontzi, Fernando Amezketarra...), Somuga taldekoak (Asisko Urmeneta), Eider Eibar, Aitziber Alonso eta beste hainbat izan ditugu. Euskal Herri mailan oso ezagunak izateaz gain, oso konpetenteak eta baloratuak dira, eta saiatzen gara, aldizkari monokromoa egin beharrean ahalik eta estilo ezberdinenak uztertzen.

Nola eman nahi duzue etxetik eskolako gelarako jauzia?

Irrien Lagunak proiektua zabalterakoan udalak eta ikastetxeak hartzen ditugu oinarri, eta ikastetxe Irri-zaleen sarea ere sortua dugu. Ikastetxea noiz da Irri-zalea? Ikastetxe horretako umeei *Irria* aldizkaria jasotzeko aukera ematen zaienean.

Laster webgunean irakasleen txokoa zabalduko dugu eta bertan jarriko ditugu aldizkari guztien pdf-ak. *Irria* aldizkariak gelan zer aukera eskaintzen dituen azalduko dugu han.

Aldizkariak sustatzen dituen baloreak zabaldu nahi ditugu geletan. Eta guztiaren gainetik irakurzaletasuna bultzatu nahi dugu beste planteamendu mota batekin.

“Garrantzitsua da gizarteak gorreria zer den ezagutzea eta eragiten dituen komunikazio-oztopoak saihesteko estrategien berri izatea”



Janire ALONSO

EUSKAL GORRAK ELKARTEA

Pertsona gorren beharrei erantzutea eta haiek gizartean integrazteko zubiak eraikitzea dira Euskal Gorraek elkartearen egiteko bi. Horrez gain, gizarteari gorreria zer den eta pertsona gorrekin harremanak bideratzeko estrategiak azaltzen eta ezagutarazten dihardute.

Zer da Euskal Gorraek elkarte eta ze eremutan egiten duzue lana?

Pertsona gorren elkarten euskal federazioa da Euskal Gorraek. EAEko pertsona gorren elkarteak ordezkatzen ditugu, baina elkarte guztiak ez daude gure federazioaren barruan, momentuz hiru daude. Pertsona gor helduekin egiten dugu lan, 18 urtetik gorakoekin eta gure helbururik garrantzitsuena pertsona gorrentzako oinarrizko zerbitzuak bermatzea da.

Lan prestakuntzarako aholkulari-

tza zerbitzu bat dugu, “Abian” izenekoa. Ez dago zertan bazkide izan zerbitzua jasotzeko, eta bertan, lan mundurako orientabidea eskaintzen dugu batetik, eta bestetik Lanbideko ikastaroren bat egin nahi bada interprete-zerbitzua eta antzerakoak eskaintzen ditugu.

“Eutsi” izenekoa gure bazkide diren elkartei eskaintzen diegun zerbitzu bat da, giza baliabideak eskaintzen ditugu bertan, bitartekaritza-lana egiten dugu eta, esate baterako, diru-laguntzak eskatzeko laguntza eskaintzen dugu, baita baliabide teknikoan inguruko aholkularitza ere, eta informazioa ere ematen dugu.

Zeinu hizkuntzako ikastaroak ere eskaintzen ditugu, eta baita interprete zerbitzua ere.

Zer da interprete zerbitzua?

Eusko Jaurlaritzarekin dugun hitzarmen bati esker, EAEko hiru lurraldeetan eskaintzen dugu zerbitzu hau. Zerbitzu honen eskaera egiten dutenek, egunerokotasunean egin beharreko kudeaketetarako (medikua-rengana joan, bankura, abokatuarengana...) interpretearen laguntza izaten dute, astelehenetik ostiralera.

Jasotzen ditugun eskariak interprete kopurua baino ugariagoak direnez, dauzkagun baliabideen arabera moldatu behar izaten dugu eta batzuetan ezin izaten ditugu eskaera guztiak bete. Gauregun, Bizkaian lau interprete ditugu, Gipuzkoan bat eta Araban bi. Lehentasuna medikuareneko hitzorduei ematen diegu, eta

bestelako hitzorduetan erabiltzaileek eta interpreteek ahal duten ordua eta eguna jartzen saiatzen gara.

Azken aldian nahikoa hedatua dago zeinuen hizkuntza, baina aski da edo badaude gabeziak?

Gaur egun gehiago entzuten da zeinu-hizkuntzaren berri gizarte mailan, modan dagoela esan daiteke, baina gabeziak badaude.

Ume gor baten beharrei erantzun ahal izateko, jarraipena egin eta eredu linguistikoa zein pedagogikoa bermatzeko, gure ustez, irakasle titulua eta zeinu-hizkuntzako dutenen profilekoak behar dira. Zeinu-hizkuntzako hiru mailak dituztenak, gure ustez, ez dira nahiko ume gor baten eredu linguistikoa izateko, goragoko profil bat beharrezkoa da, eta momentu honetan zeinu-hizkuntzako gorengo maila, zeinu-hizkuntzako interpretea da.

Hezkuntza mailan goragoko maila bat eskatzea aldarrikatzen dugu, eta hezkuntzako mailako ikasketak ere oso garrantzitsuak direla uste dugu ume gor baten jarraipena egiteko.

Interpretea izateko, ez dago zeinu-hizkuntzako hiru mailak egin beharrik, goi mailako interprete titulua izan behar da. Euskal Herri mailan Bilboko Botika Zahar institutuan baka-rik eskaintzen da bi urteko formazio hau.

Ez ote litzateke beharrezkoa herritar guztiok ezagutzea oinarrizko zeinu-hizkuntza?

Garrantzitsua iruditzen zaigu gizartearen gehiengoak oinarri batzuk izatea; gorrieria zer den, mota ezberdinak, eta eragiten dituen komunikazio-oztopoak saihesteko edo arintzeko estrategia ezberdinen berri izatea. Baina pertsona gor guztiek ez dute zeinu-hizkuntza erabiltzen, ez dira zeinu-hizkuntzako hiztunak. Gorrieria arloan ere hainbat maila daude, galera eta gradu ezberdinak baitaude, eta gor guztiek ez dute zeinu-hizkuntza erabiltzen komunikatzeko tresna gisa. Kolektiboaren zati handi batek erabiltzen du, baina galera baxuagoak dituztenak edo audiofonoe-kin ondo moldatzen direnak ere badaude.

Ez da berdina zeinu-hizkuntza erabiltzen duen pertsona batekin komunikatzen saiatzea edo erdi mailako galera bat daukan pertsona batekin komunikatzea. Batzuekiko zein besteekiko estrategiak ezberdinak dira, eta horregatik, hain zuzen ere, garrantzitsua da dauden aukerak ezagutzak eskolan txiki-txikitatik landu beharrekoak direla uste dugu, eta horretarako sensibilizazio-ikastaroak proposatzen ditugu. Dena dela, argi dago mundu guztiak ezin duela zeinu-hizkuntza ikasi, hezkuntza-sisteman sartzen ez den bitartean behintzat. Hainbat lekutan, Madrilen, esate baterako, hasiak daude, hautazko irakasgai gisa edota beste hizkuntzen modura zeinuen hizkuntza sartzen.

Gorrek/gormutuak, askotan pertsona gorrek esan ordez, 'gormutuak' esaten

da, baina ez dira gauza bera, ezta?

Gorren mundua ezagutzen ez duen batek horrelako nahastea izatea ulergarria da; baina ez dira nahastu behar. Ez dutenez entzuten, jende askok uste du gorrek mutuak direla, nahastu egiten baitira. Baina gorrek hitz egin dezakete, hotsak atera ditzakete. Entzumen galera oso txikia edo ertain dutenek, edo audiofonoarekin ondo moldatzen direnak eta baita beste pertsona gor batzuek ere hitz egiten dute, eta gainontzekoek ulertzen dute; badaude beste batzuk hitz egiteko gai direnak baina gainontzekoak ez direnak gai haiei ulertzeko, tonua gaizki erabiltzen dutelako, ez dutelako ondo ahoskatzen... kontua da galera hau daukaten pertsonek ez dakitela nola hitz egiten duten.

Gorra ez den pertsona batek entzumen bitartez ikasten du hitz egiten, zuzenduz ikasten da hitz egiten, "hau ez da horrela esaten, zuzendu hori..." baina pertsona gorrek ez dute holarikorik. Soinuak atera eta hitz egiteko gaitasuna badute, baina norberak bere ahotsa entzun gabe askoz zailagoa da zuzenketak egin ahal izatea.

Mutuek, berriz, ahots kordetan dute arazoa, eta horren ondorioz ezin dute soinuak atera.

Zer jakin beharko genuke zeinu-hizkuntzari buruz? Udako ikastaroa nola bideratuko duzue?

Lehendabizi guraso eta hezitzaile orori zuzendutako sensibilizazio-hitzaldia egitea pentsatu dugu: Zer da gorrieria? Ondoren, hainbat motatako gorrieriak daudela ikusiko dugu eta

zer esan nahi duen horrek eta gorrieri moten eta horien arabera zer nolako inplikazioa gara daitekeen komunikazio mailan ere aztertuko dugu. Horrez gain, ezgaitasun hori duten pertsonekin komunikatu ahal izateko zer nolako aukerak dauzkagun ikusiko dugu, oinarritzko maila batean behintzat. Garrantzitsua da hezkuntzari eta integrazioari begira, ume gorrek eskoletan baztertuta sentitu ez daitezen gauza batzuk kontuan izatea, besteen baldintza berdinetan hezkuntza prozesuan aurrera egin ahal izateko aukerak izan ditzaten...

Eta beste alde batetik zeinu-hizkuntzako oinarritzko ikastaroa ere emango dugu, 10-12 ordukoa, oso laburra izango da baina oinarritzko hiztegi bat irakasteko, zeinu-hizkuntzaren egitura azaltzeko eta gramatika ezagutarazteko erabiliko dugu. Horrelako ikastaro laburrak egiten ditugunean, hezitzaile profilararen arabera, eremu bateko edo beste hitz tekniko batzuk erabiltzen ditugu, hala nola, Haur Hezkuntzako irakasleekin haurren hitz teknikoak, erizainekin osasunaren ingurukoak, etab.



Kirol egokitua eta kirol irakaskuntza inklusiboa



Eneritz MAIORA
Amaia ELIZONDO

GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA

Eskola-kirola da Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioaren lantegi naturala. Aniztasun funtzionala duten eta eskola-adinean dauden neska-mutilak kirolera bultzatzea baita federazioaren egiteko garrantzitsuenetakoa bat. Ikasle guztiak sentsibilizatzen eta ezgaitasunak dituzten ikasleak integratzen ahalegintzen da elkartea.

Zer da Bocalan Biak bat?

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa 2003an sortu zen, eta orduanik etengabe hazi den federazioa da hau. Sorreran bi kide bazituen ere, gaur egun 14 langilek eta boluntario ugari osatzen dugu taldea.

Zein eremutan egiten duzue lan?

Eremu ugari lantzen ditugu, kirol egokituak hainbat arlo barnebiltzen baititu: Eskola-kirola da gure eremurik garrantzitsuenena, urritasunen bat duten eta eskola-adinean dauden neska-mutilak kirolera bultzatzea da asmoa. Hainbat herritan egiten dugu lan, besteak beste, Donostian, Zarautzen eta Elgoibarren, eta gure helbu-

“Gutxi dira oraindik kirol egokitan dabil-tzan entrenatzaile, epaile eta teknikariak”

ria urtez urte herri gehiagotara iritsi ahal izatea da.

Bestalde, sentsibilizazio-jardunaldiak ere antolatzen ditugu, gehienbat ikastetxeetan. Helburua ikasleak sentsibilizatu eta ezgaitasunak dituzten ikasleak integratzen ahalegintzea da. Ikasleek urritasun bat izanda bizitzea zer den ikusten eta esperimintatzen dute eta, horrela, errazagoa egiten zaie besteen lekuan jartzea eta besteen egoera ulertzea.

Prestakuntza ikastaroekin ere izaten dugu zeregina, oraindik ere kirol egokitan gutxi baitira entrenatzaile, epaile edota teknikari gisa jarduten dutenak, eta zabalduz joan nahi badugu, formakuntzari garrantzia ematea ezinbestekoa baita.

Udan, “Bainua oztoporik gabe” izeneko programa jartzen dugu martxan, mugikortasun-arazo handiak dituzten pertsonen hondartzara joateko eta bainatzeko aukera eman asmoz. Osasunaren arloan “Ospikirola” daukagu, osasun-, integrazio-, normalizazio- eta gizarteratze-programa da, jarduera fisiko egokituaren bidez, urritasun bat duten edo hainbat arazoiren ondorioz patologiararen bat duten pertsonen zuzendua.

Eta, azkenik, kirol eskolak ere baditugu, kirolean dabilten ikasleek ikasten jarraitzeko aukera izan dezaten.

Nola egituratuko duzue ikastaroa?

Lehenengo egunean kontzeptuak argituz hasiko dugu saioa: zer den jarduera fisikoa, kirola, ariketa,

etab. Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) definizioak ere landuko ditugu. Bestalde, aniztasun funtzionalaren definizioa eta honen onurak ere jorratuko ditugu.

Jarduera fisikoak hezkuntzan duen garrantziaren inguruan ere hitz egingo dugu eta curriculumean heziketa fisikoak duen lekua eta eskola-kirolaren inguruko kontuak ere landuko ditugu.

Bigarren egunean sentsibilizazioari emango diogu garrantzia, ikastaroan parte hartuko dutenek urritasun ezberdinekin bizitzea zer den esperimintatuko dute. Bestalde, bai gorputz hezkuntzan eta, honen baitan eskola-kirolean, erabiltzeko estrategia inklusibo ezberdinak jorratuko ditugu.

Azken egunean Gipuzkoako kirol egokituaren inguruan ariko gara.

Zer hutsune ikusten duzue, eta aurrera begira, zer lan dago egiteko?

Kirol egokitan dabilten gazteen topaketak falta dira, eskola-kiroleko gainontzeko kirolekin konparatuz gero, argi ikus dezakegu oso urriak direla topaketa, lehiaketa edo horrelako dinamikak, eta gazteek behar dute beraien artean jolasteko, ezagutzeko...eremuak sortzea. Duela gutxi, Zarautzen topaketa inklusiboak egin ziren, eta kirol egokitan dabilten ikasleek beraien gelakideekin parte hartu zuten; oso esperientzia aberasgarria eta polita izan zen guztientzat eta aurrera begira horrelako ekimenekin jarraitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Zer estrategia izan ditzakegu irakasleok, espazio publikoak gure eguneroko praktika pedagogikoan txertatzeko?



Ana REVUELTA



Javier RODRIGO

TABAKALERAKO HEZKUNTZA LAN-TALDEKO KIDEAK



Andrea ARRIZABALAGA

Eta nola gara ditzakegu ikaste-prozesu partekatuak espazio publikoetan? Zer landu beharko genuke eskolaren eta haren testuinguruaren arteko harremanak sor daitezen eta biziraun dezaten?

Horrelako galderak darabiltzagu buruan Tabakalerako hezkuntzako lantaldean. Kultura-proiektu gisa, bi-tartekotza eta harremanak, eta hortik sor daitezkeen proiektuak, elikatu

nahi ditugu. Hori gauza dadin, pedagogiak espazio publikoan txertatzeko ari gara lanean. Hezkuntzaren eta kalearen arteko harremanak eta loturak bultzatu nahi ditugu: auzoak eta kaleak, ezagutza, esplorazio eta topaleku gisa ulertuta; espazio komun gisa ulertuta, alegia. Harremanetan oinarritutako ikaste-prozesu horretan ere, agente berriek hartzen dute parte, hala nola kultura-etxeek, kul-

tura-erakundeek, elkarteek, komunitate eta ekosistema hori osatzen duten guztiek.

Hortik abiatuta, hiria edota herria hezkuntza-baliabide bihurtzen dira; sistema biziak dira, eta, hezkuntza-proiektuak garatu ahal izateko, curriculum ireki gisa ulertu behar ditugu, non eskola-taldeek eta -komunitateek esku har dezaketen. Hortaz, eskola bera espazio publikoa dela ulertu

Helburu nagusia eskolatik bertatik sortzen den

ikaste-prozesua inguruan dugun errealitatek abiatzea litzateke:



testuingurua aztertzea, ezagutza erreal eta gertuko ez baliatuta. Horrela ikasleentzako munduari garrantzia ematen diogu eta hori hezkuntzaren erdigunean kokatzen dugu

behar genuke, inguru hurbila osatzen duten pertsonak elikatu, osatu eta eraikia.

Aspalditik ari gara eskolak eta herriak egin beharreko hurbiltzetan inguruko kontuak entzuten, eta hainbat proiektu eta egitasmo sortu dira horren inguruan. Ezagunak dira, agian, Tonuccik Italiako hainbat herri garatutakoak edota, Euskal Herriari gagozkiola, Oarsoaldean edota Leioan garatzen ari direnak, bakar batzuk aipatzearen.

Jakina da metodologia eta planteamendu berri horiek aritzeak lan handia dakarrela, gauzak beste era batera egiteak beti eskatzen baitu esfortzu handiagoa; badirudi batez ere elkarlanean dagoela zailtasuna, elkarri entzun, elkar ulertu, elkarrekin egin edota beste kontuan hartze horretan. Errazagoa egiten zaigu norbera bere esparruan aritzea. Baina, gure ustez, begirada aldatzeak ez du zertan lan gehiago ekarri; aitzitik, ordura arteko lana beste era batean egiten has-teak dakar "berritasuna".

Esku artean duzuen testuan, ez dugu pilula edota jarraibide magikorik emango (zinez sentitzen dugu); horren ordez, denon esku egon dai-

tezkeen metodologia-aldaketa txikiak eta kontuan hartu beharreko oinarriko irizpide batzuk partekatu nahi ditugu. Horiek dira, gainera, une honetan gure jardunean darabiltza-gunak.

Ezagutzak inguru hurbilean daude

Esan bezala, helburu nagusia eskolatik bertatik sortzen den ikaste-prozesua inguruan dugun errealitatek abiatzea litzateke: testuingurua aztertzea, ezagutza erreal eta gertuko ez baliatuta. Horrela, inguratzen gaituenari balioa ematen diogu, ikasleentzako munduari (ikasleena euren) garrantzia emanez eta hori hezkuntza-prozesuaren erdigunean kokatuz. Jadanik ezagutzen ditugun gauzetatik abiatuta, ezagutza berriak eraikitzean gauzatzen dira ikaste-prozesu esanguratsuak, bereziki barnetatzen ditugunak. Horrek zera dakar: proiektuetan oinarritutako hezkuntza-metodologiaren eredu lantzea, non gai bati tiraka hainbat ezagutza, trebetasun edota gaitasun garatzen diren. Hots, auzo-herria hartuko dugu ardatz, eta, berori ezagutzeko eta aztertze bidean, hizkuntza bera, matematikako buruketak, geografia, historia edota ingurunea ere landu ahal izango ditugu.

Egiten ikasten

Aipatutako prozesu horiek aurrea eraman ahal izateko, garrantzi handia du alde aurretik egiten den plan-gintzak: zer eta zertarako egingo dugun aztertu, lanak eta ardurak banatu, lantaldeak osatu, beharko den denbora eta bitartekoak prestatu eta eskuratu... Ezinbestekoa da erabaki horiek guztiak ikasleekin eta beste agenteekin batera elkarrekin egitea eta egiten diren antolaketa-saio horietan ere rola aldatzea. Horrek esan nahi du parte-hartzaile bakoitzak bere zereginak bete beharko dituela; informazioa jaso (auzoko mapak bilatu, istorioak bildu, kontaktuak lortu...), erostetak egin (beharrezkoak diren materialak lortu), espazioak prestatu (plaza batean, eskolako patioan edota ikasgelan egin, espazioa desberdin

atonduko dugu), materialak sortu (elkarrizketak, informazioa biltzeko txostenak...). Zeregin horietan guztietan erabakiak eta lidergoa beti pertsona beraren gain ez egoteak talde osoaren inplikazioa ekarriko du, bai eta irakaspenak eta ekarpenak biltzea ere. Horrek harreman berriak sortzea ahalbidetzen du: bizilagunekin hitz egitea, dendariak ezagutzea, familiako kideekin hizketaldiak izatea... Pertsona horiek informazio-iturri eta, beraz, prozesuaren parte bihurtuko dira.

Ikaslea = ikertzailea

Ikaste-prozesu horiek espazio publikoaren ikerketa aktiboan oinarritzen dira. Ikasleek euren errealitate esplora dezakete, hainbat baliabideren bitartez: argazkien, elkarrizketen, marrazkien, materialen eta objektuen bildumak eginez, kaleetatik paseoak edo "deribak" eginez, mapa subjektiboak sortuz. Izan ere, ikasleak ikertzaile-paperean sartuta, beren ikaste-prozesuaren protagonista izango dira.

Horrelako proiektuetan, esku-hartze eta prozesu ugari eta, aldi berean, oso desberdinak gara daitezke. Hona hemen zenbait proposamen:

Ibilaldiak sortu: Ikasleek auzoan edo herrian ibilbide propioak sortzen badituzte eta beste kolektibo batzuekin dinamizatzen badira (bisita gidatu tematikoak balira bezala), beste toki eta begirada batzuen balioa azpimarratzen ari gara. "Gida" horiek osatzeko, ikasleek ikerlan garrantzitsuak egin behar lukete, eta izandako bizipenak beste gertakizun eta istorioekin kontrastatu behar lituzkete.

Auzoko soinua: beste begirada interesgarri bat auzoaren soinuen bidez ezagutzea litzateke. Gure inguruak duen soinua aztertzea eta grabatzea; jada ez dauden soinua kontakizun bidez jasotzea. Adibidez, pertsona heldu batek dituen soinu-memoriak jaso litezke elkarrizketa bidez, eta baita saltzaileen oihiak eta fabrika zahar bateko txirrinak ere. Hori egin ondo-

ren, soinuok sarera igo daitezke, oso era errazean, eta mapa batean koka daitezke, beste pertsona batzuek entzun ditzaten eta mapa osa dezaten.

Herriko errezetak: Herria bertan egiten diren errezeten bidez ere ezagut daiteke. Hainbat pertsonarekin bil gaitezke, eta errezetak eskatu. Errezeta horietan, hainbat elementu agertuko dira: ohiturak, jakien jatorriak, familien memoria, herriko hainbat kulturaren ezaugarriak, ekonomia-harremanen bilakaera hainbat garaitan... Errezeta-liburu bat egin daiteke, edota bideoak graba daitezke, eta errezetak azal ditzakete (eta, bide batez, sukaldean ikas dezakete!).

Kaleak berrikusi: Azkenik, ikasle gazteenek kaleetan dituzten ikuspuntuak jasotzen dituen argazki-erakusketa edo -bilduma bat ere osa daiteke. Zer ikusten dute auzoan bospasei urteko ikasleek? Zerri erreparratzen diote? Nola ikusten da kalea beraien altueratik eta interesetatik? Zer zailtasun dituzte?

Lehenik eta behin, ibilbide bat egin genezake, argazkiak atereaz eta aldaketak proposatuz. Aldaketa horiek auzoko elkarteekin edota udalarekin elkarlanean landu daitezke, eta, zergatik ez, auzoko lantegi baten espazioan kokatzeko artefaktu berriak sor daitezke, esaterako, banku txikiak, eskailera txikiagoak edo jolasgune berriak.

Prozesuari denbora eman

Horrelako proiektuak garatu ahal izateko, badira garrantzi handia duten osagaiak: denbora hartzea, entzutea, harremanak zaintzea edota elkarriketa piztea; gaur egun urriak diren balioak dira guztiak. Baina benetan ezagutza horiek parteka daitezten, tartea eskaini behar diogu sor litekeen horri, eta, horretarako, prozesu eta pertsona bakoitzaren erritmoak errespetatu behar ditugu. Horrek zera esan nahi du: aldeztatik markatutako helburuak ere maiz alda daitezkeela, garapenean gertatzen diren aldaketek eskatuta. Alegia, beste hel-

buru batzuk jartzeko aukera eman behar diogu eta pasatzen denari balioa eman behar diogu.

Zentzu horretan, hanka sartzeko eskubidea aldarrikatu nahi dugu, ikaste-prozesuetan horren beharrezkoa den faktorea baita, gauzak ondo atera ez eta egindakoa errepikatzera eta hobetzera eramaten gaituena. Ikaste-prozesuak “deriba” antzera ulertzen baditugu eta bidean gauzak topatzeari tartea uzten badiogu, benetako ezagutza esanguratsua sor daiteke.

Ezagutza berriak plazaratu

Prozesu horien bidez ezagutza sortzen dela ulertu behar dugu. Ekoizpen kulturala egiten ari gara, mundua begiratzeko modu berriak, irakurketa berriak, berrazterketak... sortzen. Horregatik, garrantzi handia du prozesu horiek ekoizteko eta partekatze fase bat izateak. Beraz, interesgarria produkzio horiek komunitatearekin partekatzea litzateke, bai eta kalera eramatea ere. Horixe izan daiteke, gainera, espazio publikoan lan egiteko beste modu bat.

Ekoizpenak eta hedapenak hainbat forma har ditzake; besteak beste, aukera hauek izan daitezke: seinale edo poster formatuan sekuentzia bat sortu eta hainbat tokitan jarri (plazetan, dendetan,...); modu iraunkor edo ez-iraunkor batean espazioen banaketa edo erabilera aldatu, lurrean klarionarekin edo margoarekin (iraunkortasunaren arabera) esku hartu, espazioaren itxura eta erabilera aldatzeko (jolasak marraztu normalean horrelakorik ez dagoen tokietan, zebra-bide berriak egin, mezuak idatzi...); espazio publikoan geratuko diren altzari berriak sortu eta jendearekin partekatu (agian, prozesuaren azalpen labur bat emanez). Azken batean, ezagutza berriak abian jartzea eta partekatzea eta prozesuari garrantzia ematea da oinarritzakoena, garrantzia soilik “emaitzari” eman gabe.

Nabigazio-egunerokoa

Prozesuetan murgilduta gaudeanean, zaila izaten da askotan denbora atera eta pasatzen ari denari buruz

Ekoizpen kulturala egiten ari gara, mundua begiratzeko modu berriak, irakurketa berriak, berrazterketak... Garrantzi handia du prozesu horiek ekoizteko eta partekatze fase bat izateak. Produkzio horiek komunitatearekin partekatu eta kalera eramanean behar genituzte



idaztea edo hitz egitea, eta, maiz, soilik bukatutakoan eskaintzen diogu tarte bat ebaluazioari. Halaber, interesgarria izaten da tarte horretan guztian ideiak, hausnarketak, norabidealdaketak edota elementu berriak ere jasotzea, eguneroko baten formatuan bada ere.

Gertatutakoaren narrazioak osatzeari esker, interesgarriak izan diren alderdiak kontuan hartzeko aukera izango dugu, eta, aurrera begira, baita irakaspenak jasotzeko eta beste batzuentzako inspirazio-iturri izatekoa ere.

Ikaskuntza-komunitatean etengabe ari gara ikasten eta gure praktikak zalantzan jartzen. Irakaspen horri etekina atera diezaiozun eta gero eta proiektu interesgarriagoak sor daitezten, beharrezkoa da hezkuntza-komunitatearekin partekatzea. Idatzi honen bitartez, hori helarazten saiatu gara. Bukatzeko, gogoratu egindako proiektuak modu irekian eskaini litezkeela, beste nonbaiten berriro asma eta erabil daitezten.

Ideiak buru guztietan daudela entzuten dugu sarritan; baina buru horiek elkarriketan jarri behar ditugu, ideia horiek errealitate bilaka daitezten.



0-3. Hezitzaileen formazioa

Bortxaketarik gabeko heziketa

“Sentiberatasun bereziko solaskidea behar du haurrak”

“Ez ezazu nirekin haurra banintz bezala jokatu” izeneko hitzaldia emango du Susana Martinez Eskurtze Institutuko Haur Hezkuntzako irakasleak eta Euskal Herriko Pikler-Loczy sareko kideak 0-3 zikloko hezitzaileen formazio-saioan. Bortxaketarik gabeko heziketaren inguruan Hik Hasik Udako Topaketen barnean antolatutako ikastaroarekin bat egingo du saioak.

Martinez irudiko, gaur egungo ingurunabar sozialek serioski eragiten diete autonomia-prozesuei eta modu osasungarrian hazteari: desirak berehala betetzearen apologia, frustrazioarekiko tolerantzia txikia, arauen prestigio-galera, ahalegin falta, prozesuaren ideia ukatzen duen berehalakotasuna... Alderdi horiek guztiek bizitzako ikaste-prozesua zaildu egiten dutela dio, eta, hitzaldia- ren izenburuari erreferentzia eginaz, hainbat galdera planteatzen ditu: Zer da haurrarekin ondo jokatzea? Zerk definitzen du zer den ondo tratatzea, zaintzea? Unibertsala den zerbait da, edo aldatu egiten da denboraren joanean? Ondo jokatzea haurraren beharrak asetzea da? Haurrari dagokion lekua ematea da?

Bereizi egiten ditu Martinezek

“tratu txarrak ematea” eta “gaizki tratatzea” kontzeptuak: delitua litzateke lehena, eta, normalizatuta dagoelako, naturalizatuta eta ikusezin gelditzen dena bestea. Bigarren horretan hainbat alderdi sartzen ditu: beti presaka bizitze hori, edota guraso izatea eginahal guztiak egin eta bizitzari bizkarra emanda bizitzean datzala onartzea, bizi-sortzaile izan beharrean edo bizi-prozesuetan lagun egitea izan beharrean.

Eta zer dakarkio haurrari denborarik eta pazientziarik gabe zaindua izate horrek? Hala dio irakasleak: “Gure interesgunea lehen haurtzarotik beste adin batzuetara mugitzen badugu, profesionalek adierazi digute gero eta haurtxikiagoak hartzen dituztela; gero eta haur gehiago direla arreta falta dutenak edota bulkadak eta oldarkortasuna kontrolatzen ez dituztenak, prozesatu ezin duten gehiegizko estimulazio baten aurrean jartzen direnak, edota nahi duten guztia jasoko dutela agintzen zaientak. Gero eta gehiago dira nahastuta dabilzan eta segurtasuna emango dien autoritate-eredurik ez duten familiak, edota gainez eginda dabilzan hezitzaileak, harreman-gatazkei ir-

tenbidea emateko irizpideak eskatzen dituztenak, segurtasunik ez duten helduak. Lehen urte horietan gertatzen dena lotuta dago gero, haurtzaroan, pubertaroan, nerabezaroan, helduaroan... gertatzen denarekin”.

Haurra ondo tratatzearekin loturik, kontuan izan beharreko bi alderdi aipatzen ditu Martinezek: batetik, bizipenak, esperientziak, ekimenak eta espontaneotasunak subjektuaren eraikuntzan duten garrantzia; eta, bestetik, subjektua modu osasuntsuan eraikitzeke haurraren gaitasunak lantzeak duen garrantzia.

1. Barrutik ateratzen dena

Martinezek azaldutako eran, aurkitu, esploratu edota ezagutu nahiak eramaten du haurra mundura irtetera; munduan diren estimuluek dei egiten diote. Eta haurra estimuluen bilatzaile da. Oinarri segurua izanda, lehen urrutzeak egin ditzake -hau da, alden- bere motibazioak bultzatuta-. Haurra bere esperientzien bila (berari interesatzen zaion eta helduarengandik ez datorren zerbait egin nahian) oso goiz hasten dela dio; areago, askotan helduaren aurka jartzen dela esperientzia hori egiteko, hel-

duak haurra berak espero duen gauzak egiten ikusi nahi duenean: “Esperientziaren kontu hori, modu erraz batean esanda, bizi duguna da, dardara eragiten diguna, bizi garen sentipena ematen diguna. Horixe bilatu nahi izaten dugu zer bait berria egitera goazenean, guretzat ezezaguna den toki bat ezagutzen dugunean, jardue- ra berriren batean saiatzen garenean, jardunaldi batzuetarako izena ematen dugunean”.

Haurrak ikasten ari dela konturatu- zen denean, hiru aurkikuntza egiten dituela azaltzen du Martinezek: lehenik, ikasi duen hori (adibidez, koilara batekin erretilu bat edo edalontzi bat jo, soinu desberdina ateratzen duela); bigarrenik, ikasitako horrek aberastu egiten du, baliabide berri gehiago barneratzen dituen neurrian (ez da gauza bera ate bat irekitzen jakitea eta ez jakitea); eta hirugarrenik, aurkitzaile da bera ere (askoz gauza gehiago aurkitzeko gai aren izakiak gara).

Duten neurria dutela ere, bada zer bait komuna esperientzia guztietan, adituaren arabera: bakoitzak egiten dion ekarpen berezia, norberaren ukitu hori. Izan ere, bere esanetan, mundura irteteko, haurtxoak barne- indar bat du, bere bizitasunaren adie- razpena den indar bat, hau da, bere espontaneotasuna. Indar horrek kan- poko mundura eramango du haurra, behar ditugun afektuak bilatzera, besteekin harremanak ezartzera, tru- katzera, esploratzera, ezagutzera, ikastera. Horrexegatik, Martinezen ustez, helduak haurrari egin nahi duen guztia egiten uzten badio, ez da ari haren espontaneotasuna errespe- tatzen; “ziur asko, heldu hori ez dago libre, haren burua haurtxoa bizitzen ari den horretatik urrun egongo da. ‘Denak balio badu’ oinarri hartuta jo- katzen duen heldua haurtxoa aban- donatzen duen heldua izango da. Jo- atea eta itzultzea, biak izango dira be- harrezko; haurrak laguntza eta elkar- lana behar ditu bere proiektuetarako,

egiten duenari erantzun bat ematea eskatzen du, ikuspuntu bat, gutxie- nez, egiten duena besteak hauteman duela egiaztatzea. Sentiberatasun be- rezia duen solaskide bat behar du, haur esploratzaile, esperimentatzaile eta jostalari batek zer behar dituen ja- kin dezan eta, gainera, haurtxoaren asmoak desordena, etsaitasun edo heziera txarreko zeinu modura zen- tzu negatiboan epai ez ditzan aurrez. Baldintza horietan izango dituzte emaitzarik onenak haurtxoaren bulka- dek”.

2. Nahi duen guztia edo dezakeen guztia?

Haurrak bere gaitasunak beste gi- zaki batzuekiko harremanean eraiki- tzen dituela esplikatzeko du Martine- zek, gizakiok ditugun beharrak beste batekin elkartzean soilik ase daitez- keela, eta horregatik, behar horiek di- mentsio soziala hartzen dutela. Hala, norbanakoa loturen bilbe batean agertzen da, eta hor garatzen da nor- banakoaren oinarria, beharra/asetas- una bikoteari esker: “Haurtxoa jaiot- zen denean, eta oinarriko helduare- kin guztiz bat eginda dagoenean, oso ondo identifikatzen dira haurtxoaren beharrak eta horien asetzea. Amak guztiahaltasunaren ilusioa pizten du haurtxoarengan, esnea haren ahoan jartzen baitu hark behar duen unean bertan. Hala, bada, berak esnea as- matu duela sinesteko aukera emango dio horrek haurtxoari, kanpoko ob- jektu hori berak sortu duela pentsatu- ko du. Baina gaitasun berriak eskura- tzen dituen heinean, beharraren erantzuna berehalakoa ez denez, beste gaitasun batzuk badituelako, beharraren eta behar horren asetzea- ren arteko bereizketa gertatuko da, eta arrakala horrek tresna psikikoa- ren mugimendua behartuko du: nia- ren eta ez-niaren arteko desberdinta- sunaren hasi-masiak agertuko dira, errealtatearen eta fantasiaren arteko- ak, niaren eta munduaren artekoak”.

Martinezek adierazi bezala, gaita- sun berriak eskuratzeak aurkako sen- timenduak sortuko dizkio. Alde bate- tik, gaitasun berriak aurkitzeak eta praktikan jartzeak poza sortuko dio; eta, bestetik, eta honetaz gutxiago hitz egiten da gaur egun, beldurra sentituko du gauza berrien aurrean, urduritasuna, eta aurrekoari agur esa- teak nahigabea ekarriko dio. Baina, haurrak bere buruaren ardura hartze- ko abilezia berri bat sortzen duen unean, funtsezkoa da gehiegi ez la- guntzea, haurrak abilezia horiek ga- ratzeko aukera izan dezan eta egin beharreko doluak egin ditzan. “Behar baino gehiago edo gutxiago egiten duen helduak haurraren nartzisis- moa hausten du, eta ez dio aukerarik ematen haurrari bere baliozko nia in- bestitzeko. Horregatik, nahitaezkoa da helduak eskuzabaltasunez joka- tzea une honetan, haurraren erabate- ko hornitzaile izateari uztea eta, alde batera geldituz, haurrari irekitzeko gaitasuna ematea. Oinarriko hel- duak zailtasunak baldin baditu hau- rrentzat ‘den-dena izateari uzteko’ eta horren dolua egiteko, altzoa hu- tsik sentitzeko, haurrak gure lagun- tzarik gabe egiten dezakeela onartze- ko, eta, familien kasuan, seme-alaben hazieratik aske gelditzean duten den- bora hori kudeatzeko... Behar baino gehiago egiten badugu, haurra gero eta pasiboagoa izango da, tirano bihurtzeko arriskua izango du, eta de- sira eraikitzeko gaitasuna kenduko diogu”.

Aldiz, Martinezek adierazitakoari jarraiki, bere tokian dagoen haurra, egin dezakeena egiteko gaitasuna duen haurra, gauza berriak egitera bultzatu den haurra, gizakiarekiko lo- turatik sozializatutako haurra, balio- tsua sentituko da eta besteekin erla- zionatzeko abileziak garatuko ditu, doluei aurre egin ahal izango die eta mota guztietako sentimenduak bar- neratuko ditu, modu osasungarrian hazi ahal izateko.

HIPREST TALDEKO KIDEAK Metodo berriak prestakuntzan

Eredu tradizionalak agortzen direnean

Profesionalak etengabe formazten aritu behar duela entzuten da behin eta berriz, bizitzan zeharreko formazioa ezinbestekoa dela gizartean gertatzen ari diren aldaketan aurrean postura hartzeko eta sortzen ari diren eskakizun berriei erantzuteko. Irakasleen prestakuntzarako metodo berriei buruz hitz egingo dute HIPREST iker-taldeko hiru kidek: Genevako Unibertsitateko Itziar Plazaolak, Mondragon Unibertsitateko Matilde Sainzek eta EHUko Uri Ruiz Bikan-dik. “Badakigu irakasleen prestakuntzan eredu tradizionalak agortuta daudela; kontua da nola formatu”, diote.

Ikastaroaren helburu nagusia ikasgelako jarduera erreala ardatz hartzen dituen metodoak ezagutaraztea da. Metodo horiek irakaslearen jarduera bere gelako testuinguru errealean hartzen dute abiapuntua, alegia, irakasleak egiten duenetik abiatzen dira aldaketak eta hobekuntzak irudikatzeke: “HIPREST taldeko kideok metodologia hau erabiltzen ari gara, hizkuntzaren irakaskuntzaren eremuan bereziki, bai etorkizuneko irakasleekin, euren praktikaldia aprobetxatuz, bai eskarmentua duten irakasleekin, ikasgeletan egiten duten lana aztertuz”.

ANE ABLANEDO Eskola libre eta demokratikoak

Haurrak benetako protagonista

Eskola libre eta demokratikoak etorkizuneko gizartea alda dezaketen heziketa-eredu direla uste du Ane Ablanedo irakasleak eta psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan adituak. Nola eraiki, ordea, eskola libreak? Zein ezaugarri dituzte eskola demokratiko horiek? Galdera horiei erantzuten saiatuko Ablanedo Udako Topaketetan emango duen ikastaroran. Bere esanetan, hezkuntza ez da gizarte sistematik eta haren balio eta helburuetatik aparte uler daitekeen zerbaite: “Sistema mantenduko duen herritarra fabrikatu eta doktrinatzeko eginkizunean hezkuntza-sistemak

daukan zeregina funtsezkoa eta ezinbestekoa da. Horrela, egungo sistemaren gaineko hausnarketa egitea zinez garrantzitsua da, bertako heldu eta haurren arteko harremana osasuntsuago eginez, haurra benetako protagonista duen eskola demokratikoagoa sortze aldera”.

Eskola libre eta demokratikoak gaitzat hartuta, hainbat alor jorratuko ditu; hala nola, haurraren heziketa, familia eta eskola, haurraren garapena ulertzeko moduak, sozializatzea = eskolatzea?, hezkuntza eta ideologia, eskola osasungarriaren ezaugarriak, eskola alternatiboak munduan...

Pentsamendu autonomo eta enpatikoa



Miren CAMISON
HAUR FILOSOFIAKO IRAKASLEA

“Elkarrizketarekin pentsamendu kritikoa lantzen da”

Zer da elkarrizketa? Nola sortu elkarrizketarako testuinguru egokiak? ZeIN baliabide daude? Bakarrik edo besteekin pentsatzen dugu hobeto? Nola sentitzen gara besteen ikuspuntu ezberdinen aurrean? Zer esan nahi du “entzuteak”? Galdera horiei eta beste hainbati erantzungo die Miren Camison Haur Filosofiako irakasleak “Pentsamendu autonomoa eta sortzailea komunikazio enpatikoan” izenburupean eskainiko duen formazioan. Ume eta gazteek, beraien pentsamendu autonomoa eta sortzailea modu esanguratsuan eraiki ahal izateko espazioak sortu eta eskaini behar dituztela uste du Camisonek, horretarako talde elkarrizketa eta komunikazio enpatikoaren metodologia erabiliz. “Elkarrizketarekin pentsamendu kritikoa eta sortzailea lantzen dira, baldin eta testuinguru egoki batean garatzen bada. Konfiantza, apaltasuna, errespetua eta maitasuna dira elkarrizketako hitz gakoak”.

Haurrentzako masajea



Joxe Ramon MAUDUIT
PSIKOLOGOA

“Egoera zaila bizi duenean emango diogu masajea”

“Jaio bezain pronto emango diogu masajea haurrari, komunikazioa eta elkarren arteko lotura sustatzeko; baina, batez ere, haurrak egoera zail edo estresagarria bizi izan duenean ematen diogu, bizi izandako estutasun hori kroniko bihurtuz dadin”, hala azaltzen du Ramon Mauduit psikologoak eta prebentzioan adituak.

Haurrentzako masajeak irakasleentzat hiru behar nagusi nabarmentzen ditu, eta horietatik izango dira, hain zuzen, Mauduitek ikastaroan landuko dituenak: lehenik informazioa, hau da, neurozientziak haurren garapenari buruz eta lehenengo hiru urte horietan ongi antolatutako garuna garatzeko nerbioen loturek duten garrantziari buruz esaten diguna; bigarrenik, jarrera, hau da, heldu baten eta haur baten arteko zeharkako harremanaren zergatia, eta erreferentziatzeko pertsonaren garrantzia; eta hirugarrenik, ukitzen jakitea, edo “UKITU” masajea nola eman.

URKO AROZENA

Entrenamendu mentala eta ametsen azterketa

Antsietatearen aurrean, barrura begira

Produkzioa gero eta gehiago baloratzen den gizartearen, gizakion hutsuneak nabarmentzen dira: konfiantza falta, beldurrak, muga estuak, noraeza, pertzepzio ez zuzenak, gure buruarekiko eta inguruarekiko sinetsmen ez zuzenak, etab. Entrenamendu mentaletik eta ametsak ematen dituzten informazioarekin barne lanketa bidez norbanakoak berezko baliabideak landu, helburuak argitu, garatu eta plazaratzeko beharrezko indarra eta ziurtasuna eskuratuko duela dio Urko Arozena Musikeneko irakasleak eta Psikologia Positiboan eta Kontrol Mentalean adituak. “Gure

errendimendua gero eta hobe izatea eskatzen digu jendarteak. Horrek nabarmenki handitu du bizitzaren gaineko presioa; eta nekea, haserrea, estresa, energia-gabezia, gogo eza eta beste hainbat elementu agertu dira gure egunerokoa. Gehienok sentitu dugu antsietate motaren bat gure bizitzan. Antsietate horiek jan ez gaitzaten, ikaragarri eraginkorra da barrura begiratzea”. Ikastaroan psikologia positiboaren, PNLren, Sofrologiaren, Kontrol Mentalaren, erabateko barkamenaren, Minfulness-en eta beste hainbat barru lanketa tresnen eraginkortasuna biziko dute ikasleek.

PELAIO EIZAGIRRE DE GARATE

Bideoa: editatzen ikasi

Ulertzeko eta erabiltzeko erraza

Pelαιο Eizagirre de Garatek eman duen ikastaro honetan Pinnacle Studio bideo-programa ezagutzeaz gain, kamera batekin grabazio egokia nola egin ikasiko da. Hau da, planoaren morfologia landuko da (plano orokorra, plano amerikarra, plano erdia..., kameraren mugimenduak, fisikoak eta bere ardatzetakoak...): nola grabatu eta grabazioa nola antolatu editatzerakoan.

Edizioan lagunduko gaituzten eta azken emaitza hobetuko duten atal garrantzitsuak dira. “Studio programa oso erraza da ulertzeko eta erabiltzeko, eta ideala da proiektuak eraikitze-

ko bideoz zein DVDz. Programa horrekin lan egiteak zer esan nahi du: lehenik bideoak, argazkiak, audioa, animazioak eta abar lotu beharko ditugula, gero bigarren fase batera pasa eta pixkanaka elementu horiei guztiei edizioaren bidez forma emateko. Horietako elementu batzuei ukitu berezia eman beharko diegu (formatoa aldatuz, filtroak erabiliz, apainketak eta abar eginez). Azkenik, elementu guztiak nahasi ditugunean, nahi dugun formatura aterako ditugu, izan zinta batera, DVDra edota aurkezpen multimediar txertatzeko artxibo batera”.

Sormenetik emozioen kontzientziara

Sortze-prozesua oinarrizatz hartuta, emozioekin egingo da lan, Jasone Irigoien sortzaile eta irakasleak emango duen ikastaroan. Tailer praktikoa izango da. Pintura, zeramika, eskultura, gorputz espresioa, erlaxazioa... hainbat elementu uztartuko dira emozioak azaleratu eta bideratzen ikasteko.

Sortzea, artea, sendabidea dela zioen Joseph Beuys artistak. Bere aburuz edonork izan daiteke artista. “Jung-ek zioen moduan gizakiak sozializatze prozesuan sozialki ‘zuzenak’ edo ‘egokiak’ ez diren norbere ezaugarriak eta emozioak baztertzen ditu, inkontzientean gorde, pilatu. Egunerokoan ordea Jung-ek ‘itzala’

zeritzon horrek nahigabe baldintzatu eta mugatu gaitzake. Emozio eta korapilo horiek azaleratzeak gertatzen zaigun horren kontziente egiten gaitu; modu horretan gure jokamoldearen zergatia azaleratu eta egoera horretan esku har dezakegu”. Tailerren helburua sormenaren laguntzaz parte hartzaileen emozio eta jokaeren kontzientzia hartzea eta norbere potentziala berreskuratzea da. Ikastaro honetan pertsonalki sentitu, sumatu eta bizi izandakoa lanabes bilakatuko da haurrekin lan egiterakoan. “Enpatiaz lan eginaz haurren emozioak, beharrak, eta kezkek sortzearen bidez askatu eta bideratu ditzakegu”.



Marina PINTOS
YOGA IRAKASLEA

“Yogak ikasleen arreta hobetzen lagun dezake”

Irakasle edo hezitzaile izatea ez dela lan erraza uste du Marina Pintos yoga irakasleak, berezkoa duen lanaz gain, ikasleen kontzentrazio eza, dispertsioa, motibazio falta, emozio aztoratuak, jarrera desegokiak eta abar presente baitaude. Horrek guztiak irakasleen osasunean eragin dezakeela dio, estresak sistema immunologikoa makaltzen baitu gaitz fisiko eta psikologikoak sortzeko arriskua areagotuz (urduritasuna, lo egiteko arazoak, min muskularrak, kontzentrazio falta, tristura, depresioa, etab.). “Yogako hainbat teknikak eragin horiek arindu eta bideratzen dituzte. Teknika horiek ikasleekin erabiltzeko aukerata daudenez, beraien kontzentrazioa handitu egiten da, la-saitasuna ezarri, adimenaren gaitasunak bizkortu, portaera hobetu eta ikasketarekiko jarrera baikortu”.

Hauexek dira ikastaroaren helburretako batzuk: asana edo jarrera fisikoaren bitartez gorputza sentitzea, la-saitzea, indartzea, energia harmonikoki mugitzea, adimena lasaitzea eta kontzentratzen ikastea; arnasketak...

Lau arlo jarduera berean

“Gure ikasgelan lau arlo horien –grafomotrizitatea, dramatizapena, musika eta psikomotrizitatea– azpi-prozesuak jarduera berean ikusteko gai izango gara”, hala dio Aitor Zenarruzabetia musika irakasleak ikastaroaren gainean.

Ikastaroan, lehenik, idazketarako eskuaren trebakuntza landuko da (sorbalda, ukondoa eta eskumuturra askatzeko teknikak; pilates baloiak, perkusioak eta masajeak; hatzak bantatzeko digitoaerobic eta txotxongi-loak; etab.). Bigarrenik, ahozko hizkuntzarako gorputz eta ahotsaren adierazpena landuko da (ahoskera

eta doinuera lantzeko komiki bizidunak; entzumen antzeztuak; narrazioa garatzeko bat bateko antzerki sketchak; zaletasunen inkesta; etab.). Hirugarrenik, erritmo horizontala eta tonu-harmonia bertikala orkestratuko dute (figura metrikoak ikasteko teknikak; erritmo neurriak eta tinbreak bat batean sortu eta partiturak osatzea; etab.). Azkenik, gorputzaren ongizate toniko-bestibularra, zentzumotorea eta irudikatua ahalbidetuko da (gorputz jarrerak, dantza libre eta elkarriketa tonikoa lantzeko metodologia; gorputz-eskema eta gorputz-irudia graffiti teknika; etab.).

IBON DE LA CRUZ

Heziketa emozionala

Ikuspegi berria eta praktikoa

Gizartea aldatu egin da, egoera ekonomikoa ere bai, izugarritzko berriak ikusten ditugu egunero telebistan, eta etorkizuna bermatzeko modurik ez dago. Gaur egungo mundua aldakorra da eta mundu horri aurre egiteko prestakuntza emozionalik ez dela aztertzen uste du Ibon de la Cruz psikologoak. Hortaz, heziketa emozionala lantzen irakastea izango da saioaren helburua. Nork landuko du, ordea, heziketa hori? Nori zuzenduko zaió? Zeintzuk dira landu beharreko gakoak? Betiko ikuspegia baliogarria da? Irakasleen helburuak aldatu egin behar dira? Zer da bizitzan arrakastatsua izatea? Nola lortu gaixotasun emozionalak gutxitzea?

Galderak, galderak eta galderak. Eta momentuz, erantzunik ez. Hori izango da ikastaroa egiten dutenen betebeharra: gelditzea, eta errealitatea berriro aztertzea. “Hori lortzeko, ikuspegi berria, ausarta eta praktikoa behar dugu. Goazen ba, gai horiek guztiak aztertzeraz, eta hainbat teknika eta egiteko modu ikastera. Eta hori guztia, betiko moduan: umorez eta praktikotasunez”.

NEREA MENDIZABAL

Nola kudeatu eguneroko gatazkak

Amorrua potentzia bihurtuz

Lotara joan aurreko haserreak, janaririk probatu nahi ez, eskolara joateko arazoak, amagandik ezin banandu, telebista ikusteari utzi nahi ez, kasu egiteko 100.000 aldiz errepikatu behar... Zer egiten dugu gatazka egon dadin? Jokiera desegokiaren aurrean zer egin? Haurrak nola ikasiko du? Zer daukagu aldatzeko? Nola jarri mugak mehatxu, zigor eta xantaiarik gabe? Nola jaso haurraren amorrua? Haurra gehiegi babesten ote dut? Nola lagundu bere autonomia? Guraso askoren zalatzak izan ohi dira. Horien gainean gogoeta egin eta eguneroko gatazkak kudeatzeko gakoak eskainiko ditu Nerea Mendizabal psikopedagogoak. “Haurraren osasun emozionala zaintzen ikastea da gure helburua, gurasoek eta hezitzaileek eurek barnean izan dezaketen amorruren kontzientzia hartzea, eta ezintasun eta haserre hori benetako indar eta potentzia bilaka dadin lortzea”.

ALAZNE UGARTETXEA

10 gai, 10 plastika proposamen

Beste era bateko materiekin

“Gabonak datoz! Zelan apainduko dugu gela?”, “Zelan landu sentimenduak plastika txokoan?”, “Gelako maskota egiteko ideiarene bat?”... Horrelako galderak behin baino gehiagotan entzuten dira irakasle geletan. Berdin da proiektuak zein beste metodologiaren bat erabili, azkenean, kezka antzekoak izan ohi dira. Plastika teknika desberdinak eta material berriak ezagutarazteko xedearekin eta plastika mundua beldur barik ikusarazteko zein esperientziak elkarbanatzeko helburuarekin “10 gai, 10 plastika proposamen” saioa emango du Ugartetxeak. Ikastaroa guztiz dinamiko eta praktikoa izango da, tailer bat. Ikasurtean lantzen diren 10 gai (itsasoa, udaberria, eskola, sentimenduak...) abiapuntu gisa hartuko dira eta egunerokotan topatzen diren materialekin (platerak, kutzak, tutuak...) 10 proposamen desberdin aurkeztuko ditu. Lan horiek hainbat motatakoak izango dira (jostailuak, apaingarriak, txotxongiloak...) eta erraz egitekoak: “Amaitzeko, buruak martxan jarriko ditugu eta egindakoari bizitza emango diogu abesti zein istorioren bat antzeztuz”.

JOSUNE ALBERDI

Pedagogia sistemikoa ikasgelan

Arreta, hezitzailearen rolean

Pedagogia sistemikoa hezkuntza paradigma berria da. Hezkuntza arloan errealitate zabalagoa hartzen du kontuan. Ikuspegi horren berrikuntza nagusia hezkuntzarekiko begirada eta jarrera aldatzea da. Itziar Alberdi Euskal Herriko Pedagogia Sistemikoaren Eskolako kideak ikuspegi berri hori ikasgelan txertatzeko gakoak emango ditu Udako Topaketetan: “Hezitzaileen rolean jartzen dugu arreta, bera baita datozen belaunaldien ikas-prozesuko eragile nagusia. Pedagogia sistemikoak ikasgelan sortzen diren zailtasunei eta gatazkei aurre egiteko hezitzaileek eta ikasleek dituzten baliabideak areagotzen ditu”. Izan ere, pedagogo sistemikoak haurraren errealitatea bere osotasunean hartzen du kontuan eta hezitzailearen baliabideak eta trebeziak sendotzeko ahalegina egiten du. “Hezitzaileak ikaslearen heldutasun eta formazio prozesuan eragin handia izan dezake”.

atzeko atetik



Ane ABLANEDO

Irakaslea eta psikoterapian aditua

Maite dut nire pentsamenduek haur denboretara jauzi egiten duteneko sentsazioa, bai eta horrelakoetan gogora etortzen zaizkidan haurtzaroko irudi lausoei kulunka nazaten uztea, orduko bizipen gozoen magalean. Eskuartera suertatutako argazkiren bat izan ohi dut nire iraganen murgiltzeko aitzakia nagusi. Batzuetan baina, ondotik pasatzen zaidan lurrrin iheskorren bat, edo ahanzturaren gordelekura igorritako zapore zaharren baten aurkikuntza pozgarria izaten da eskutik heltzen nauena eta zuzenean berarekin naramana haurra nintzeneko garaiko atmosfera indartsu eta ebokatzailer horretara.

Gogorapenok laguntzen didate izan nintzen neskatalaren nolakoa nire barrenean irudikatzen, eta gustatzen zait deskubritzea haur ttipiaren begirada eta keinuetan, edo inguruaren detaile ttipietan, naizen emakumearen funtsezko ezaugarri askoren jatorria. Horien arteko bat nagusi ageri da denetan. Orduan bezala orain ere nabarmen eta gidari. Herriak eragiten didan zirrara. Eta ematen didan mina.

Ez zitzaidan etxean euskara eman. Bai ordea gurasoek txertatu, haiei ukatua izan zitzaien kulturaren hazia eta

Min ematen dit herriak

gogoa. Ikastolan hitza eman zitzaidalarik beraz, uztartu egin zitzaidan orduko hezur haragietan mamitua zitzaidan sentimenduari, eta hizkuntza loratu zitzaidan, xamur, eder. Ia berez.

Geroztik euskaldun egin dut orainoko nire bidea. Euskaldunoi pairatzea egokitu zaigun zoritxarraren oso jakitun. Zein den eta nolakoa. Ezinbestean jakin behar, noski, askatasuna eta emantzipazioa edukiko badugu helburu. Eta zorionez jakin ere. Haurroi gurea herri menderatua zela argi, garbi eta konplexurik gabe esaten zitzaidun garaiko kumea naizelako bai baitakit edozein euskaldunek jakin behar lukkeen egia funtsezko eta askatzailea. 40 urte berantago sortu banintz, herri menderatua baino, gurea gizarte antizela esango zitzaidakeen, tamalez.

Oso ezagun du gureak kolonizazio luzearen higadura sakona. Duintasunaren babesaren emanen liokeen ideologia propioaren faltan, etsaiak eskaini betaurrekoak onartu ditu bere errealtatearen begiratu eta izendatzeko. Eta halaxe dabil, gustuz ibili ere, horien bitartez ikusten duenaren arabera antolatua nahian bere etorkizuna. Akabatu gogoz lepotik helduta daukan horrek inperialismo izena duela eta erruki gabea dela inozoki jakin gaberik.

Kezkagarria zait oso, nire esparruaren hezkuntzaren horretan ere, bidean asmatu ezinean dabilen herriaren gain behera. Desio dugun hezkuntza sistema propioa independentziaren bidetik baizik etorriko ez zaigula-eta, askatasunaren helburura beharko genuke denok lerratu. Penaz baina daku-sat, badela gure artean, herriak berak

eta berarentzat sortu ikastola arbuia-tzera ere iritsi denik. Etsaiak pozondurik dauden eta guretzat erabat arrotz beharko luketen elitista, pribatu eta burges bezalako etiketekin. Menderatzen gaituen hori entzuten dut mintzo nire anaien hitz akonplejatu hauen bidez. Menderatzailearen etxean gurea eraikitzen utziko digutelako uste inozo bezain ustelean, oker.

Penaz begiratu ere, estrategia politiko orokorrago baten babesaren faltan gure ikastolak daukan nora eza. Diru-laguntzen amua irentsita, sistema arrotzak trukean ezartzen dizkion baldintzetan preso, eman zitzaidun eginkizuna eta helburua ditu ia ahanzt, jakin ere ez dakiela zein jaunari ari zaion zerbitzatzen, noren aginduetara ari lanean. Eta penaz ere ikusi, nola ez, indarrean dagoen sistemari alternatiba izan asmoz sortutako zenbait eskola “libre”-k, ukatu nahi duten sistema horri egiten dioten mesedea, euskara lehenetsi nahi ez dutenean. Haurrak etxetik dakarren hizkuntza errespetatu behar delakoan, sistemak mendetan indarrez ezarritako hizkuntza horien hegemoniaren konplize bilakatzen dira. Frantses eta espainolaren nagusitasun erabatekoaren inertzian hizkuntzarekiko atxikimendua haurraren motibazioaren esku uztea ere herriaren beste inozokeria bat baino ez delarik.

Etxeko jabetza itzuliko digun askatasunaren giltza sasi artean berandu baino lehen bilatzea da gaurko euskaldunoi egokitu zaigun ezinbesteko ardua.

Gure haurrek merezi duten etorkizunagatik. Otoi.



TXINDOKIKO ITZALA

ABENTURAZKO
EKINTZAK
IKASTETXEAK
TALDEAK

Lehen hezkuntza,
bigarren hezkuntza
eta batxilergoko
ikasleei egokitutako
ekintzak dira.

ESKALADA IKASTAROAK

Armeztetako Zazpiburriko eskalada eskolan kirol
distiplina hau praktikatzeko aukera bikaina da.

ABENTURA PARKEA

Segurtasun osoz, ume eta gazteak zuhaltz
batetik bestera joko desberdinen bidez ibiliko
dira: zubi nepaldarrak, tirolinak, kulunkak...



ORIENTAZIO IBILBIDEA

Mapa baten laguntzaz,
bidean markatutako
puntu guztiak topatu
beharko dituzte joko
gainditu ahal izateko.



MENDI IBILBIDEAK

Aralarreko Natur Parkeko tontor, txoko eta
altxorak ezagutzeko aukera izango dugu.

Larraitz auzoa, Abaltzisketa
info@txindokikoitzala.com

628 947 253

WWW.TXINDOKIKOITZALA.COM

Hazieraz eta Heziketaz ekarpen egokia egiten ahalegintzen den aldizkaria



Hazi Hezi
harpidetza
20 euro urtean

